



AIARAKO UDALAK 2020ko URRIAREN 22an EGINIKO OHIKO OSOKO BILERAREN AKTA.

UDALBURUA

Gentza Alamillo Udaeta jn.

ZINEGOTZIAK:

Iñigo Pinedo Vadillo jn.
Montse Angulo Solloa and.
José Antonio Bartolomé Pesquera jn.
Itxaso Gorbeña Allende and.
Unai Campo Arenaza jn.
Susana Martín Benavides and.
Karmele Población Martínez and.
Marian Mendiguren Mendibil and.
Koldo Mendioroz Goldaraz jn.
Iratxe Parro Uzquiano and.

Arespalditzan, udaletxeko bilkuren aretoan, bi mila eta hamahiruko urriaren hogeita bederatzian, hemeretziak direnean, Udalbatza Osoa bildu da ohiko bilera egiteko. Josu Artetxe Arana alkate jauna da burua eta albo batean adierazitako zinegotziak bertaratu dira, behar bezala deituta, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedaturikoaren arabera. Neuk, Naiara Lazpita Marcos idazkari andreak, lagundu ditut eta ekitaldiaren fede eman dut. Alkatea Gentza Alamillo Udaeta jauna da eta bilkura osatu du aipatutako zinegotzi jaun/andreekin eta M^a Del Carmen Rojo Pitillas idazkari andrearen laguntzarekin.

IDAZKARIA

M^a Del Carmen Rojo Pitillas and.

Alkate jaunak ongietorria egin die guztiei, eta besterik aipatu gabe eguneko **GAI-ZERRENDAKO** gaiak bozkatu eta eztabaidatu dira:

1.- Onestea, bidezkoa bada, 2020ko irailaren 17an eginiko ohiko bilkuraren akta.

Iratxe Parro Uzquino zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) adierazi du abstenitu egingo dela, ezin izan zelako egon aipatutako bilkuran.

Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH Bildu) adierazi du eskaeren eta galderen eremuan honako hau dagoela idatzita: *...Adierazi du bere taldea abstenitu egin zela ez zeudelako ados partidaren diru-esleipenarekin, horiek 35.000,00 euro zirelarik...* Berak esan zuena izan zen ez zeudela ados deialdiarekin aurrekontuak oraindik ez daudelako onetsita, “de facto” onestea zen eta arazoa ez zen diruaren zenbatekoa soilik.

Esku-hartzeak amaitzean, Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andrearen (AIARA BATUZ) abstentzioarekin eta gainerako udalkideen aldeko botoarekin, erabaki da aipatutako akta onestea.

2.- Udalbatzaren erabaki-proposamena, Etxaurren Ikastolako IGEaren eta Aiarako Udalaren arteko hitzarmenari buruzkoa, 2020. urtean bi urtetako haurren gelan laguntza psikopedagogikoa eta laguntza zerbitzua finantzatzeko.- Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio Aiarako Udalaren eta Etxaurren Ikastolako IGEaren arteko hitzarmena, 2020. laguntza psikopedagogikoa eta *bi urtekoen gelaren zerbitzua (laguntzailea)* finantzatzeko. Horrek honako hau dio:



“ERABAKI-PROPOSAMENA:

IKUSI DA.- Etxaurren Ikastolako Gurasoen Elkartearen eta Aiarako udalaren arteko lankidetzeta-hitzarmenaren proposamena, Etxaurren ikastolako laguntza psikopedagogikoko zerbitzua eta bi urtekoen gelaren zerbitzua (laguntzailea) finantzatzeko 2020. urtean.

AINTZAT HARTU DA.- 2020ko udaleko aurrekontu luzatuan hitzarmen honek adierazten dituen gastuei aurre egiteko nahikoa diru dago.

Udalbatza Osoari proposatu zaio honako **ERABAKI** hau hartzea:

Lehenengoa.- Onestea Etxaurren Ikastolako Gurasoen Elkartearen eta Aiarako udalaren arteko lankidetzeta-hitzarmenaren proposamena, Etxaurren ikastolako laguntza psikopedagogikoko zerbitzua eta bi urtekoen gelaren zerbitzua (laguntzailea) finantzatzeko 2020. urtean. Horrek honako hau dio:

**“AIARAKO UDALAREN ETA ETXAURREN IKASTOLAKO GURASOEN
ELKARTEAREN ARTEKO 2020ko LANKIDETZA-HITZARMENA, ETXAURREN
IKASTOLAKO LAGUNTZA PSIKOPEDAGOGIKOKO ZERBITZUA ETA BI URTEKOEN
GELAREN ZERBITZUA (LAGUNTZAILEA) FINANTZATZEKO.**

Arespalditzan, 2020koaren(e)(a)n

HONAKO HAUEK BILDU DIRA:

Alde batetik, Aiarako Udaleko GENTZA ALAMILLO UDAETA alkate-udalburu jauna (NAN zk.: 44.686.448-R), Aiarako Udaleko idazkari M^a Del Carmen Rojo Pitillas andrearen laguntzarekin, bilkuran esandako guztia ziurtatzen duena.

Bestetik, jn./and., Etxaurren Ikastolako Guraso Elkartearen burua, NAN zenbakia duena.

ESKU HARTZEN DUTE:

Lehenengoak Aiarako Udaleko alkate-udalburu gisa, toki erakunde honen izenean eta ordezkartzan, horretarako gaitasuna eta eskumena baitu Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearekin bat etorritz.

Bigarrena, Etxaurren Ikastolako Guraso Elkartearen (IFK zk.: G01118769) ordezkaria.

Bi aldeek elkarri aitortzen diote erabateko gaitasun juridikoa eta Lankidetzeta Hitzarmen hau emateko eta betetzeko lan egiteko erabateko gaitasuna, eta, horretarako,



HONAKO HAU ADIERAZTEN DUTE

I.- Etxaurren Ikastolako Guraso elkarteak hezkuntza- eta gizarte-lan handia gauzatzen du, bere erreferentzia-zentroa den Etxaurren Ikastolan gauzatzen den heziketa-lana osatu, hobetu eta hedatzeko. Horretarako, Aiarako Udalaren laguntza du elkarteak.

II.- Etxaurren Ikastolako Guraso Elkarteak gauzatzen duen funtzio nagusietako bat, Aiarako Udalaren laguntza ekonomikoa izanda, Etxaurren ikastolako laguntza psikopedagogikoko zerbitzua eta bi urtekoen gelaren zerbitzua (laguntzailea) bermatzea da, hori gauzatzeko langile teknikoak kontratatzearen bidez (psikologo bat eta laguntzaile bat).

III.- II. puntuan adierazitako zerbitzua gauzatzen jarraitzea ezinbestekoa dela uste dutenez guztiek, Aiarako Udalak -Etxaurren Ikastolako Guraso Elkartearen adostasunarekin- ebatzi du laguntza ekonomikoa ematea aurreko puntuan aipatutako elementua gauzatzeko, 2020ko urteko dirulaguntza arautzen duen hitzarmen honen bidez, Aiarako Udalaren eta Etxaurren Ikastolako Guraso Elkartearen artekoa.

VI.- Aplikatzekoa den legeria zehatz-mehatz betez, eta Lankidetzaren Hitzarmenak sinatzeko Toki Erakundeek duten eskumenari jarraiki, bi aldeek Lankidetzaren Hitzarmen hau formalizatzen dute, eta jarraian adierazitakoak bete beharko dituzte

HIZPAKETAK

Lehenengoa.- Hitzarmen honen helburua da **ETXAURREN IKASTOLAKO GURASO ELKARTEARI** dirulaguntza ematea, Etxaurren ikastolako laguntza psikopedagogikoko zerbitzua eta bi urtekoen gelaren zerbitzua (laguntzailea) finantzatzeko 2020. urtean; izan ere, aipatutako bi zerbitzuak izatea ezinbestekoa da Aiara udalerrian dagoen Etxaurren Ikastolak hezkuntza-komunitatearen hezkuntza- eta gizarte-arreta behar bezala ematen jarraitzeko.

Bigarrena.- Hitzarmen honetan zehaztu egiten da, **AIARAKO UDALAREN ETA ETXAURREN IKASTOLAKO GURASOEN ELKARTEAREN** arteko lankidetzaren hitzarmena, Etxaurren ikastolako laguntza psikopedagogikoko zerbitzua eta bi urtekoen gelaren zerbitzua (laguntzailea) 2020 ekitaldian finantzatzeko.

Laguntza psikopedagogikoko zerbitzua (psikologoa):

- Irakasleekin
 - Zentroko orientatzailearekin batera, laguntza-gela koordinatzea
 - Logopedarekin koordinatzea
 - PTarekin koordinatzea
 - Berritzegunearen orientatzailearekin koordinatzea
 - Ikasle bakoitzari jarraipena egiteko, psikologoa astean behin zentroko irakasle bakoitzarekin eta PTarekin koordinatuko da.
 - Irakasleentzako prestakuntza (emozioak, gatazkak konpontzea)
 - Irakasleei orientazio psikologikoak ematea, kasu zehaztarako zein klase guztiarentzat orokorrean.
 - Tutoretzetan lan egiteko materiala erraztea (eremu afektiboari, emozioen eremuari, eremu psikologikoari eta abarri buruzkoa)



- *Irakasleekin batera ikasleen jarraipenari zuzendutako bilera guztietan parte hartzea*

- *Ikasleekin*
 - *Behaketa, diagnosia eta esku-hartzea (beharrezkoa bada) eta ikasleen segimendua (eremuko orientatzailearekin koordinatuta)*
 - *Ikasleak orientatzea*
 - *Bost urtekoen gelako ikasleei proba psikologikoak egitea, baita lehen hezkuntzako bigarren, laugarren eta seigarren mailakoei zein behar duen edozein ikasleri ere.*

- *Familiekin*
 - *Familiatzako arreta zuzena*
 - *Orientazio-ekintzak*
 - *Gurasoei zuzendutako hitzaldiak antolatu eta koordinatzea (heziketa sexual-afektiboa, gatazkak konpontzea...)*

- *Beste funtzio batzuk*
 - *Irakasle ez den kide gisa egotea zuzendaritza-taldean*
 - *Durangoko Amara Berri zuzendaritza-taldeen bileretan parte hartzea*
 - *Amara Berriren topaketetan parte hartzea*
 - *Berritzegunek emandako prestakuntzan parte hartzea*

Bi urtekoen gelaren zerbitzua (laguntzailea):

- *Ikasleen higie- eta hezkuntza-beharrak asetzea*
- *Behar afektibo eta mugimenduzkoak asetzea*
- *Irakasleei laguntzea gelan zein gelatik kanpo (patioan, psikomotrizitate gelan, ikus-entzunezkoen gelan) gauzatzen den heziketa-proiektuan*
- *Fardelak aldatzea eta konketa eta bainua erabiltzen ikasten hastea*
- *Oinarrizko funtzioetan hezteak: orrazten ikastea, zapatak, mantalak, jakak, etab. erabiltzen ikastea, zaborrontzia erabiltzen ikastea gela garbitzeko jolastu eta lan egin ondoren.*
- *Autonomia lantzea eta bazkalorduan ohitura egokiak irakastea (ongi esertzea, mahai-tresnak erabiltzea, eskuak eta ahoa garbitzea)*
- *Ikasleak prestatzea siestarako prestatzea eta lokartzen diren arte laguntzea*

Hitzarmen hau 2020. urterako sinatzen da eta horren iraupena 2020ko urtarrilaren 1a eta 2020ko abenduaren 31 bitartekoa izango da.

Hirugarrena.- *Aiarako Udalak ETXAURREN IKASTOLAKO GURASO ELKARTEARENTZAT onesten duen ekarpen ekonomikoa dagokion udalaren aurrekontuetan adieraziko da. Hilabetero ordainduko da dagokion zenbatekoa, eta lehenengo ordainketa egin baino lehen, Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean izatearen ziurtagiria aurkeztu beharko du elkarteak. Gainera, Etxaurren Ikastolako Guraso Elkarteak zerbitzuko langileei ordaindu behar izanen die: laguntza psikopedagogikoko zerbitzuko psikologoari eta bi urtekoen gelako zerbitzuaren laguntzaileari.*

2020. urteari dagokion ekarpen ekonomikoa honako hau izango da:



- *Laguntza psikopedagogikoko zerbitzuko psikologoa (1.500,00 euro esleituta, egon litezkeen bajetarako)* 36.200,27 €
- *Bi urtekoen gelako laguntzailea (1.500,00 euro esleituta, egon litezkeen bajetarako)* 21.387,24 €

2020ko EKARPENA GUZTIRA: 57.557,51 €

2020ko hitzarmenean esleitutako zenbatekoa osotara 3.000,00 euro da, bi lanpostuetan egon litezkeen bajak estaltzeko. Zenbateko hori, beharrezkoa izango balitz, osorik erabili liteke lanpostuetako batean soilik egondako baja estaltzeko, zegokion lanpostuan erabiliko ez dela ziurtatu ondoren.

Hitzarmen honetan bajak estaltzeko esleitutako zenbatekoa ez balitz nahikoa izango, Aiarako Udalak gertaerari aurre egiteko aukera aztertuko du, aurrekontu eskuragarria badago.

Laugarrena.- Hitzarmen hau sinatzen denetik, **ETXAURREN IKASTOLAKO GURASO ELKARTEAK** Aiarako Udalaren babesa aipatu beharko du zenbait bideren bitartez hedatutako eta diruz lagundutako bi zerbitzuei erreferentzia egiten dioten informazioetan.

Bosgarrena.- **ETXAURREN IKASTOLAKO GURASO ELKARTEAK** honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du diruz lagundutako hurrengo urteko urtarrilaren 31 baino lehen, Aiarako Udaleko Erregistro orokorrean:

- a) *Hitzarmen honen bidez diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko lortutako dirulaguntza guztien aitortpena, bai erakunde pribatu eta bai publikoetatik jasotakoak.*
- b) *Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunarekiko ordainketak egunean daudela egiaztatzen duen agiria.*

c) *Hitzarmen honen bidez diruz lagundutako jardueraren inguruko agiri hauek:*

- *Diruz lagundutako ekitaldiko gastuen eta diru-sarreraren balantzea, hauen kopiarekin: ekitaldi horretan bi langileei ordaindutako nomina guztiak.*
- *TC-1 eta TC-2 agirien kopiak.*
- *Diruz lagundutako urte naturalaren Jardueren Memoria*
- *Egindako jarduera bakoitzaren ebaluazio-fitxa eta egin izanaren zinpeko deklarazioa.*

Eta adostutakoarekin bat datozela frogatzeko, aldeek lankidetzaz hitzarmen honen hiru aleak sinatu dituzte, zuzenketarik edo urratzerik gabe, dokumentu hau osatzen duten 4 orrialdeetako bakoitzean, eta hitzematen dute berau beteko dutela dokumentu honen goiburuan agertzen den lekuan eta egunean.

ALKATE-UDALBURUA IDAZKARIA

Sin.- Gentza Alamillo Udaeta Sin.- M^a Del Carmen Rojo Pitillas.



Alkate jaunak eta idazkari andreak elektronikoki sinatutako dokumentua.

ETXAURREN IKASTOLAKO GURASO ELKARTEAREN PRESIDENTEA,

Sin,- “

Bigarrena.- *Alkate-udalburuari baimena ematea aipatutako hitzarmena sinatzeko.*

Hirugarrena.- *Erabaki hau Etxaurren Ikastolako Guraso Elkarteari jakinaraztea.*

Arespalditzan.- ALKATEA.- Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

Elektronikoki sinatutako dokumentua”.

Gai honen aldeko irizpena eman zuen Kultura, Kirol eta Gazteria Informazio Batzordeak, 2020ko urriaren 13an egindako ohiko bilkuran.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da eta aho batez, ohiko bozketan, erabaki du onestea transkribatutako erabaki-proposamena, idatzi den moduan.

3.- Aiarako Udalaren eta Etxaurren Ikastolako IGEaren arteko hitzarmenari dagokion udalbatzaren erabaki-proposamena, 2020. urteko eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak gauzatzeko.- Jarraian, Batzordeari Aiarako Udalaren eta Etxaurren Ikastolako IGEaren arteko hitzarmenari dagokion erabaki-proposamenaren berri eman zaio, 2020. urteko eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak gauzatzeko. Horrek honako hau dio:

“ERABAKI-PROPOSAMENA

IKUSI DA.- *Udalerrian kirol- eta kultura-jarduerak gauzatzea sustatu eta mantentzea Aiarako Udalaren udal-interes publikokoa dela.*

IKUSI DA.- *Aiarako Udalaren eta Etxaurren Ikastolako Guraso Elkartearen 2020. urterako hitzarmen-proposamena, eskolako ordutegitik kanpoko jarduerak, hau da, eskolaz kanpoko jarduerak, egitea finantzatzeko (2020-2021 ikasturtea).*

AINTZAT HARTU DA.- *2020ko udaleko aurrekontu luzatuan hitzarmen honek adierazten dituen gastuei aurre egiteko nahikoa diru dago.*

Udalbatza Osoari proposatu zaio honako ERABAKI hau hartzea:

Lehenengoa.- *Onestea Aiarako Udalaren eta Etxaurren Ikastolako Guraso Elkartearen 2020. urterako hitzarmen-proposamena, eskolako ordutegitik kanpoko jarduerak, hau da, eskolaz kanpoko jarduerak, egitea finantzatzeko (2020-2021 ikasturtea). Hitzarmenak honako hau dio:*



**“AIARAKO UDALAREN ETA ETXAURREN IKASTOLAKO GURASO ELKARTEAREN
LANKIDETZA-HITZARMENA, 2020. URTEA**

Arespalditzan, 2020ko xxxxxxxxxxx(a)ren xx(e)(a)n.

HONAKO HAUEK BILDU DIRA

Alde batetik, Aiarako Udaleko GENTZA ALAMILLO UDAETA alkate-udalburu jauna (NAN zk.: 44.686.448-R), Aiarako Udaleko idazkari M^a Del Carmen Rojo Pitillas andrearen laguntzarekin, bilkuran esandako guztia ziurtatzen duena.

Bestetik, jn./and., adinez nagusia eta Aiaran bizi dena (.....n bizi dena) Etxaurren Ikastolako Guraso Elkartearen burua, NAN zenbakia duena.”

ESKU HARTZEN DUTE

Lehenengoak Aiarako Udaleko alkate-udalburu gisa, toki erakunde honen izenean eta ordezkarietan, horretarako gaitasuna eta eskumena baitu Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearekin bat etorritz.

Bigarrena, aipatu elkartearen izenean eta ordezkarietan. Elkarteak berak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatu du bere izaera eta ordezkariak, aktaren fotokopia aurkeztu baitu, eta horren bidez aukeratu eta izendatzen baita Etxaurren eskolako IGEaren presidentea (hitzarmen honetan 1. eranskin gisa erantsi da).

Bi aldeek elkarri aitortzen diote erabateko gaitasun juridikoa eta Lankidetzaren Hitzarmen hau emateko eta betetzeko lan egiteko erabateko gaitasuna, eta, horretarako,

HONAKO HAU ADIERAZI DUTE

I.- Aiarako Udalak, udalerriko kultur eta kirol ekintzak gauzatzen direla begiratzeko eta sustatzeko duen interes publikoan arreta jarritz, IGEari Hitzarmen honetan zehazten diren baliabideak eta lankidetzaren erraztuko dizkio bere helburuak lortze aldera.

II.- Udalak interes berezia du eskolaz kanpoko ordutegian jarduerak egiteari eusteko eta sustatzeko, hau da, eskolaz kanpoko jarduerak deiturikoak.

III.- Etxaurren IGE deituriko elkarteak gizarte eta kirol arloko eginkizun garrantzitsua gauzatzen ari da, udalerrian kultura- eta kirol-jarduerak asko sortzen baitu, bereziki, haurren artean. Horrez gain, arte- eta kirol-jarduerak sustatzen ditu haurren artean, ikastetxeko ohiko jardueretatik kanpo.

IV.- Etxaurren IGEak beti erakutsi du interes handia Aiarako Udalarekin lankidetzan aritzeko umeekin lotura duten kultur eta kirol ekintzak antolatzeke orduan.

V.- Aiarako Udalak, bultzatzen diren jardueren baitan, erabaki du udalerriko umeentzako kultur eta kirol jarduerak sustatzea, eta, era berean, erabaki du sustapen hori Hitzarmen honen bidez gauzatzea; izan ere, udalerrian erroldatuta dauden eta 2019-2020 ikasturterako Etxaurren Eskolan eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartzen duen ikasle bakoitzaren gastuen dirulaguntzak arautzen ditu, ikastetxearen eskolaz kanpoko jardueren egutegiaren arabera.

VI.- Aplikatzekoa den legeria zehatz-mehatz betez, eta Lankidetzaren Hitzarmenak sinatzeko Toki Erakundeek duten eskumenari jarraiki, bi aldeek Lankidetzaren Hitzarmen hau formalizatzen dute, eta jarraian adierazitakoak bete beharko dituzte



HIZPAKETAK

LEHENENGOA.- Hitzarmen honen helburua da Aiarako Udalak sustatu eta bultzatzea Etxaurren Ikastolako kultur eta kirol jarduerak, Etxaurren IGEaren bidez. Horrez gain, hitzarmenari esker Etxaurren IGEaren bidez familiei zuzendutako prestakuntza emango da.

BIGARRENA.- Aiarako Udalari dagokion sustapen jarduerak eskolaz kanpoko ekintzek eragiten duten gastu batzuez (gastuen zati batez) arduratzea eta hauei dirulaguntza ematean datza.0}

Jarduera gauzatzeko beharrezkoa den materiala gurasoen kontura izango da.

2019-2020 ikasturterako gehienezko dirulaguntza 2.200,00 EURO izango da.

HIRUGARRENA.- Dirulaguntza jasoko duen jarduera gauzatzeko epea ikastetxeko egutegi ofizialarekin bat etorriko da, eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak argitaratu eta horren berri emango du Arabako Lurralde Ordezkaritzaren bidez. Egutegi hori 2020ko ekainean amaituko da.

LAUGARRENA.- Dirulaguntza honen ordainketa modua honakoa izango da: Aiarako Udalak dirulaguntzaren % 80 ordainduko du hitzarmena sinatu ondoren. Edonola ere, lehenengo ordainketa egin baino lehen, elkarteak aurkeztu egin beharko du Foru Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin egunean egotearen ziurtagiria. Gainerako % 20a berriz, behin hurrengo klausulan adierazitako dokumentazioa aurkeztu ondoren ordainduko du.

BOSGARRENA.- Udalaren urteko dirulaguntzaren zenbatekoa (gehienez 2.200,00 euro) **JUSTIFIKATZEKO** honako dokumentazio hau aurkeztuko da:

- a) Hitzarmen honen bidez diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko lortutako dirulaguntza guztien
- b) Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunarekiko ordainketak egunean daudela egiaztatzen duen agiria.
- c) Hitzarmen honen bidez diruz lagundutako jardueraren inguruko agiri hauek:
 - Diruz lagunduko den jardueraren diru-sarrera eta gastuen balantzea
 - Egindako jarduera bakoitzaren ebaluazio-fitxa eta egin izanaren zinpeko deklarazioa.
 - Amaitutako urtearen memoria ekonomikoa (ekintzen gastua + funtzionamendu gastua), bere gastu eta diru-sarrerekin, faktura eta ordainketa agiri bakoitzarekin.

Lehen akordioan adierazitako baldintzak ez betetzekotan ez da dirulaguntzarik emango eta aurrez abonatutako zenbatekoak itzultzeko prozedura bat jarriko da abian.

Hitzarmen honetako bosgarren akordioan adierazitako beharrezko justifikazio hori 2020ko irailaren 30erako ez aurkeztekotan, ez da dirulaguntzarik emango eta aurrez abonatutako zenbatekoak itzultzeko prozedura bat jarriko da abian.

Jarduera honetarako emango den dirulaguntza hau ez da bateragarria Udalak urtero deituriko gainerako dirulaguntzekin.

SEIGARRENA.- Etxaurren IGEak egiten duen publizitate guztian, Aiarako Udalaren lankidetzeta eta babesa jaso beharko du.



ZAZPIGARRENA.- Etxaurren IGEak Hitzarmen honetan jasotako betebeharrak betetzen ez baditu, indarrean dagoen diru-laguntzei buruzko araudian aurreikusitako erantzukizun eta zehapen erregimena aplikatuko da.

Eta adostutakoarekin bat datozeala frogatzeko, aldeek lankidetzaz hitzarmen honen hiru aleak sinatu dituzte, zuzenketarik edo urratzerik gabe, dokumentu hau osatzen duten 4 orrialdeetako bakoitzean, eta hitzematzen dute beraz beteko dutela dokumentu honen goiburuan agertzen den lekuan eta egunean.

ALKATE-UDALBURUA, ETXAURREN IGEaren PRESIDENTEA,

Sin.: Gentza Alamillo Udaeta. Sin.:

Nire aurrean, IDAZKARIA,
Sin.: M^a Del Carmen Rojo Pitillas”.

Bigarrena.- Alkate-udalburuari baimena ematea aipatutako hitzarmena sinatzeko.

Hirugarrena.- Erabaki hau Etxaurren Ikastolako Guraso Elkarteari jakinaraztea.

Arespalditzan..- ALKATEA.- Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

Elektronikoki sinatutako dokumentua”.0}

Gai honen aldeko irizpena eman zuen Kultura, Kirol eta Gazteria Informazio Batzordeak, 2020ko urriaren 13an egindako ohiko bilkuran..

Udalbatza jakinaren gainean geratu da eta aho batez, ohiko bozketan, erabaki du onestea transkribatutako erabaki-proposamena, idatzi den moduan.

4.- Aiarako Udalaren eta “Hogehitalau Elkartearen” arteko Hitzarmenari buruzko Udalbatzaren erabaki-proposamena, 2020. urterako.- Jarraian, Batzordeari Aiarako Udalaren eta “Hogehitalau Elkartearen” arteko hitzarmenari dagokion erabaki-proposamenaren berri eman zaio. Horrek honako hau dio:

“ERABAKI-PROPOSAMENA

IKUSI DA.- Udalak interesa duela euskararen ezagutza eta erabilera udaleko arlo guztietan sustatzeko.

IKUSI DA.- Hogehitalau Euskara Elkartearen izena emanda dagoela Aiara udalerriko elkartearen erregistroan, eta, besteak beste, euskararen ezagutza eta erabilera soziala bultzatzea duela helburu.

IKUSI DA.- Aiarako Udala eta Hogehitalau Euskara Elkartearen lankidetzan aritzeko 2020 ekitaldiko hitzarmena, Aiara udalerrian euskara sustatzeko ekimenak eta jarduerak bultzatzeko asmoa duena.



AINTZAT HARTU DA.- 2020ko udaleko aurrekontu luzatuan hitzarmen honek adierazten dituen gastuei aurre egiteko nahikoa diru dago.

Udalbatza Osoari proposatu zaio honako ERABAKI hau hartzea:

Lehenengoa.- Onestea Aiarako Udalaren eta Hogeitalau Euskara Elkartearen arteko lankidetzeta-hitzarmena (2020 ekitaldia), Aiara udalerrian euskara sustatzeko ekimenak eta jarduerak bultzatzeko.

**“AIARAKO UDALAREN ETA “HOGEITALAU EUSKARA ELKARTEAREN” ARTEKO
2020ko LANKIDETZA-HITZARMENA.**

Arespalditzan, 2020ko xxxxxxxxxx(a)ren xx(e)(a)n.

HONAKO HAUEK BILDU DIRA

Alde batetik, Aiarako Udaleko GENTZA ALAMILLO UDAETA alkate-udalburu jauna (NAN zk.: 44.686.448-R), Aiarako Udaleko idazkari M^a Del Carmen Rojo Pitillas andrearen laguntzarekin, bilkuran esandako guztia ziurtatzen duena.

Bestetik, jn./and., adinez nagusikoa, NAN zk. duena etan bizi dena.

ESKU HARTZEN DUTE

Lehenengoak Aiarako Udaleko alkate-udalburu gisa, toki erakunde honen izenean eta ordezkartzan, horretarako gaitasuna eta eskumena baitu Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearekin bat etorritz.

Bigarrena, Hogeitalau Euskara Elkartearen (IFK zk.: G-01326107) izenean eta ordezkartzan. Elkarteak berak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatu du bere izaera eta ordezkartza, aktaren fotokopia aurkeztu baitu, eta horren bidez aukeratu eta izendatzen baita Hogeitalau Euskara Elkartearen presidentea (hitzarmen honetan 1. eranskin gisa erantsi da).

Bi aldeek elkarri aitortzen diote erabateko gaitasun juridikoa eta Lankidetzeta Hitzarmen hau emateko eta betetzeko lan egiteko erabateko gaitasuna, eta, horretarako,

HONAKO HAU ADIERAZI DUTE

I.- Aiarako Udalak euskararen erabilera eta ezagutza arlo guztietan sustatzeko udalerrriaren interes publikoari jarraiki, besteak beste, honako ekimen hauek gauzatuko ditu:

- Aisialdian, kultura-eskaintzan, kirolean eta abarretan euskara erabiltzeko aukerak sortzea.



- *Euskararen erabilera bultzatzeko kanpainak eta jarduerak antolatzea, euskara ikasten ari diren pertsonen zuzendutakoak.*
- *Ahalik eta erraztasun gehien sortzea euskara hitz egiten ez duten pertsonen ikasi ahal izateko, eta erabiltzeko aukerak zabaltzea.*
- *Egokitzat jotzen diren beste edozein ekimen.*

II.- Aiarako Udalak euskararen presentzia eta erabilera sustatu nahi du udalerrian. Ondorioz, besteak beste, Hitzarmen honen bidez hainbat jarduera gauzatuko ditu. Hitzarmen honek Hogeitalau Euskara Elkarteari emango zaio dirulaguntza arautzen du, elkarteak jarduera-programa gauzatu dezan eta funtzionatzeko behar dituen gastuak ordaindu ditzan.

III. “Hogeitalau Euskara Elkartea” deitutako elkarte aiaratarren zein udalerriko elkarteen eskura dago eta bere helburua da euskararen ezagutza eta erabilera soziala bultzatzea. Horretan dabil 2011n sortu zenetik, Aiaran normalizazio linguistikoa gauzatzeko.

IV.- Hogeitalau Euskara Elkarteak frogatu egin du interesa duela Aiarako Udalarekin lankidetzan aritzeko euskara sustatzearekin lotutako jarduerak antolatzeko. Hori egiaztatzeko, elkarteak berak egin dituen eta arrakastatsuak izan diren eta jardunean dauden programak erakutsi ditu: Igande Arratsaldeak Familian, Gabonetako Lehiaketa, etab.

VI.- Aplikatzekoa den legeria zehatz-mehatz betez, eta Lankidetzaren Hitzarmenak sinatzeko Toki Erakundeek duten eskumenari jarraiki, bi aldeek Lankidetzaren Hitzarmen hau formalizatzen dute, eta jarraian adierazitakoak bete beharko dituzte

HIZPAKETAK

LEHENENGOA.- *Onestea Aiarako Udalaren eta Hogeitalau Euskara Elkartearen arteko lankidetzaren hitzarmena, Aiara udalerrian euskara sustatzeko ekimenak eta jarduerak bultzatzeko.*

BIGARRENA.- *Aiarako Udalak 2020an sustatu beharreko jardueraren edukia ekintzek eragiten duten gastu batzuez (gastuen zati batez) arduratzea eta hauei dirulaguntza ematean datza, gainera, 2020ko Hogeitalau Euskara Elkartearen funtzionamendu-gastuak estaltzeko erabiliko da dirulaguntza (jardueretan egiten diren askari eta lunch guztiak barne hartuta), Hitzarmen honetan araututakoaren arabera. COVID-19ak sortutako egoeraren aurrean, aintzat hartuko dira eta aplikatu egingo dira osasun-agintarietako ezarritako neurriak.*

HIRUGARRENA.- *2020. urterako Aiarako Udalak Hogeitalau Euskara Elkartea diruz lagunduko du, gehienez ere 4.600,00 euroekin eta euskara sustatzeko urteroko programaren gastuak ordainduko ditu, baita Hogeitalau Euskara Elkartearen urteroko funtzionamendu-gastuak.*

Ikusi da Aiarako Udalak ez duela sarbiderik Arabako Foru Aldundiak euskara sustatzeko jarduerak egiten dituzten elkarteei urtero ematen dituen dirulaguntzetarako. Ondorioz, Hogeitalau Euskara Elkarteak eskatu beharko du dagokion dirulaguntza bere urteko sustapeneko jardueren gastuak estali ahal izateko. Hogeitalau Euskara Elkarteak Aiarako Udalari adierazi beharko dio Arabako Foru Aldundiak emandako urteroko dirulaguntza jaso duela.



LAUGARRENA.- *diruz lagunduko diren jarduerak gauzatzeko epea diruz lagundutako urteko epea izango da, hau da, 2020. urtea.*

Hogeitalau Euskara Elkarteak antolatzen dituen edozein gainerako jarduera, Hitzarmen honetan ezarritako urteko gehieneko dirulaguntza gainditzen badute, elkarteak ordaindu beharko ditu eta ez ditu inolaz ere Aiarako Udalak ordainduko.

BOSGARRENA.- JUSTIFIKAZIOA *Hogeitalau Elkarteak honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du diruz lagundutako hurrengo urteko urtarrilaren 31 baino lehen, Aiarako Udaleko Erregistro orokorrean:*

- a) *Hitzarmen honen bidez diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko lortutako dirulaguntza guztien*
- b) *Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean izatearen ziurtagiria, edo hori ez izatekotan, Udalak dagozkion erakundeei beharrezko informazioa eskatzeko baimena.*
- c) *Elkartearen jarduerari dagokion honako dokumentazio hau:*
 - *Diruz lagunduko den jardueraren diru-sarrera eta gastuen balantzea.*
 - *Egindako jarduera bakoitzaren ebaluazio-fitxa eta egin izanaren zinpeko deklarazioa.*
 - *Amaitutako urtearen memoria ekonomikoa (ekintzen gastua + funtzionamendu gastua), bere gastu eta diru-sarrerekin, faktura eta ordainketa agiri bakoitzarekin.*

SEIGARRENA.- *Dirulaguntza honen ordainketa modua honakoa izango da: Aiarako Udalak dirulaguntzaren % 80 ordainduko du hitzarmena sinatu ondoren.*

Gainerako zenbatekoa, bidezkoa bada, ordaindu egingo da Hogeitalau Elkarteak aurreko puntuan ezarritako justifikazioa aurkezten duenean dagokion epean.

Aiarako Udalak edozein unetan eskatu ahal izango du dagokion informazioa.

Hogeitalau Euskara Elkarteak egiten duen publizitate guztian, Aiarako Udalaren lankidetzeta eta babesa jaso beharko du.

ZAZPIGARRENA.- *Hogeitalau Euskara Elkarteak Udalean aurtengo ekitaldiaren barruan dagokion eskaera eta proiektua aurkeztuko ditu.*

ZORTZIGARRENA.- *Hogeitalau Euskara Elkarteak Hitzarmen honetan jasotako betebeharrak betetzen ez baditu, indarrean dagoen dirulaguntzei buruzko araudian aurreikusitako erantzukizun eta zehapen erregimena aplikatuko da.*

Eta adostutakoarekin bat datozela frogatzeko, aldeek lankidetzeta hitzarmen honen hiru aleak sinatu dituzte, zuzenketarik edo urratzerik gabe, dokumentu hau osatzen duten 4 orrialdeetako bakoitzean, eta hitzematen dute berau beteko dutela dokumentu honen goiburuan agertzen den lekuan eta egunean..



Sin.- Gentza Alamillo Udaeta Sin.- M^a Del Carmen Rojo Pitillas.

Alkate jaunak eta idazkari andreak elektronikoki sinatutako dokumentua. Idazkaria.

HOGITALAU ELKARTEAREN PRESIDENTEA

Sin.-”

Bigarrena.- Alkate-udalburuari baimena ematea aipatutako hitzarmena sinatzeko.

Hirugarrena.- Hogeitalau Euskara Elkarteari erabaki hau jakinaraztea.

Arespalditzan..- ALKATEA.- Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

Elektronikoki sinatutako dokumentua”.

Gai honen aldeko irizpena eman zuen Kultura, Kirol eta Gazteria Informazio Batzordeak, 2020ko urriaren 13an egindako ohiko bilkuran..

Udalbatza jakinaren gainean geratu da eta aho batez, ohiko bozketan, erabaki du onestea transkribatutako erabaki-proposamena, idatzi den moduan.

5. Aiarako Udalaren eta “Euskalgintza Kontseiluaren” arteko Hitzarmenari buruzko Udalbatzaren erabaki-proposamena, 2020. urterako.- Jarraian, Batzordeari Aiarako Udalaren eta “Euskalgintza Kontseiluaren” arteko hitzarmenari dagokion erabaki-proposamenaren berri eman zaio. Horrek honako hau dio:

“ERABAKI-PROPOSAMENA

IKUSI DA.- Udalak interesa duela euskararen ezagutza eta erabilera udaleko arlo guztietan sustatzeko.

IKUSI DA.- Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua Elkartearen izena emanda dagoela Aiara udalerriko elkartearen erregistroan, eta, besteak beste, euskararen ezagutza eta erabilera soziala bultzatzea duela helburu.

IKUSI DA.- Aiarako Udala eta Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua Elkartearen lankidetzan aritzeko 2020 ekitaldiko hitzarmena, Aiara udalerrian euskara sustatzeko ekimenak eta jarduerak bultzatzeko asmoa duena.

AINZAT HARTU DA.- 2020ko udaleko aurrekontu luzatuan hitzarmen honek adierazten dituen gastuei aurre egiteko nahikoa diru dago.

Horregatik guztiagatik, Udalbatza Osoari proposatu zaio honako ERABAKI hau hartzea:

Lehenengoa.- Onestea Aiarako Udala eta Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua Elkartearen lankidetzan aritzeko 2020 ekitaldiko hitzarmena, Aiaraldean euskararen erabilera



normalizatzeko Kontseiluaren ekimenak eta jarduerak bultzatzeko asmoa duena. Horrek honako hau dio:

“2020ko HITZARMENA, AIARAKO UDALAREN ETA EUSKALGINTZA KONTSEILUA ELKARTEAREN ARTEAN, AIARALDEAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO”

Aiarako udalean, 2020ko xxxxxren xx(e)(a)n.

HONAKO HAUEK BILDU DIRA

Alde batetik, Aiarako Udaleko GENTZA ALAMILLO UDAETA alkate-udalburu jauna (NAN zk.: 44.686.448-R), Aiarako Udaleko idazkari M^a Del Carmen Rojo Pitillas andrearen laguntzarekin, bilkuran esandako guztia ziurtatzen duena.

Beste aldetik, JOSU ZABALA ACHA jn., AIARALDEKO EUSKALGINTZA KONTSEILUA ELKARTEAREN presidentea, 30560.679-A NAN zenbakia duena.

ESKU HARTZEN DUTE

Lehenengoak Aiarako Udaleko alkate-udalburu gisa, toki erakunde honen izenean eta ordezkartizan, horretarako gaitasuna eta eskumena baitu Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearekin bat etorritz.

Bigarrena, aipatutako elkartearen izenean eta horren ordezkartizan, G01545599 NAN zenbakiarekin.

Bi aldeek elkarri aitortzen diote erabateko gaitasun juridikoa eta Lankidetzaren Hitzarmen hau emateko eta betetzeko lan egiteko erabateko gaitasuna, eta, horretarako,

HONAKO HAU ADIERAZI DUTE

Aiaraldean, eta kasu honetan, Aiara udalerrian, euskara normalizatzeko bitarteko eta ahalegin guztiak jarri behar direla.

Lan horretan, funtsezko zeregina dute Aiara udalerriko elkartearen sarea osatzen duten erakunde et instituzioek, baita Aiarako Udalak ere. Horiek guztiek konpromiso aktiboa dute euskararekin.

Nahitaezkoztat jotzen dugu gizarte-sareak eta erakundeek batera lan egitea euskara normalizatzeko, eta, ildo horretan, batera lan egin eta konpromisoa hartu nahi dugu, horien arteko sinergiak bilatzeko.

Horri dagokionez, AIARALDEKO EUSKALGINTZA KONTSEILUA elkarteak, 2016ko otsailaren 12an Aiaraldeko 40 erakundek Laudion osatutakoak, honako funtzio hau bete nahi du: gure lurraldean euskararen alde egiten diren eginkizunak eta ekarpenak agerian jartzea eta



aipatutako normalizazio-lan hori are eraginkorragoa izan dadin hausnarketak eta dinamikak partekatzea.

Hori horrela, Aiarako Eskualdeak foro honetan laguntzeko konpromisoa hartzen du.

AIARAKO Udalak uste du udalerrirako interes publikoko proiektu bat dela.

Beraz, erakundeek euskararen erabilera normalizatzeko duten parte-hartze aktiboa gauzatzeko, bi aldeek lankidetzeta-hitzarmen hau sinatu dute. Horren edukia jarraian idatzitakoa da:

KLAUSULAK

Lehenengoa: *Hitzarmen honetan 2020. urterako lankidetzeta zehazten da, AIARALDEKO EUSKALGINTZA KONTSEILUA eta AIARAKO UDALAREN artean, euskararen erabilera normalizatzeko lanari dagokionez. Lankidetzaren helburua epe luzerakoa denez, bi aldeek adierazi dute aurten lankidetzan aritzeko asmoa dutela, eta, 2020. urtea amaitzean, datorren urterako baldintzak adostuko dira.*

Urte bakoitzeko lehenengo 3 hilabeteko epean zehar, Aiarako udalak hitzarmena berrituko duen edo ez erabakiko du, dagokion Informazio Batzordeak amaitutako urteari dagokion dokumentazioa eta hurrengo urterako baldintzak aztertu ondoren. Hori guztia AIARALDEKO EUSKALGINTZA KONTSEILUARI bidaliko dio.

Hitzarmen hau 2020. urterako sinatzen da eta horren iraupena 2020ko urtarrilaren 1 eta 2020ko abenduaren 31 bitartekoa izango da.

Bigarrena: *Bi alderdiek honako konpromiso eta betebeharrak dituzte:*

AIARAKO UDALA:

- *Eskualdeko euskara-arloko teknikariek aktiboki hartuko dute parte Kontseiluaren bilkuretan. Foro hau urtean hiru aldiz bilduko da.*
- *Teknikari horien bidez, bi alderdiek euskararen normalizazioaren alde egin dituzten edo egin nahi dituzten lanei buruzko informazioa bilduko dute. Ildo horretan, aktiboki lan egingo dute, elkarren ahaleginak osatzeko eta topaguneak eta sinergiak bilatzeko.*
- *Aiarako Udalak diruz lagunduko ditu Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak egindako jarduerak eta horren funtzionamendu-gastuak 2020an zehar, hurrengo klausulan ezarritakoaren arabera.*

AIARALDEKO EUSKARA NORMALIZATZEKO KONTSEILUAREN BETEBEHARRAK ETA KONPROMISOAK:

- *Kontseiluak batera erakundeekin batera lan egiteko konpromisoa hartzen du, euskararen normalizazioaren alde; beraz, lankidetzeta hori sustatzeko jarrera aktiboa edukiko du une oro.*
- *Lankidetzeta-hitzarmen honetarako, Kontseiluak honako betebeharrak eta konpromisoak izango ditu **Aiarako** Udalaren aurrean:*



1. *Diruz lagundutako ekitaldiaren hurrengo urtearen hasieran (urtarrila-otsaila), Aiaraldeko Euskara Normalizatzeko Kontseilua Aiarako Udalaren alkate-udalburuarekin edo horren ordezkariarekin zein euskara arloko teknikariarekin bilduko da. Deialdian honako dokumentazioa aurkeztu eta azalduko da:*

- *Diruz lagundutako urte naturalaren jardueren memoria*
- *Diruz lagundutako urtearen memoria ekonomikoa.*
- *Hurrengo urtearen plangintza (indarrean).*
- *Hurrengo urteko aurrekontua (indarrean).*
- *Erakunde bakoitzari indarreko urtean eskatutako ekarpen ekonomikoaren proposamena (indarrean).*

Hirugarrena: *Aiarako Udalak AIARALDEKO EUSKALGINTZA KONTSEILUARI 396,32 € ordaintzeko konpromisoa hartzen du.*

Urteko ekarpen ekonomikoa ordainketa bakarrean egingo da, dagokion urtearen lehenengo lauhilekoan zehar, AIARALDEKO EUSKALGINTZA KONTSEILUA elkarrearen kontuan.

Laugarrena: *Hitzarmena sinatzen denetik, Kontseiluaren jakinarazpen-euskarriek erakunde horien logotipoak barne hartuko dituzte, eta ondoan esaldi hau agertuko da: Kontseiluarekin lankidetzan ari diren erakundeak”.*

Bosgarrena: *AIARALDEKO EUSKALGINTZA KONTSEILUAK honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du diruz lagundutako hurrengo urteko urtarrilaren 31 baino lehen, Aiarako Udaleko Erregistro orokorrean:*

- c) *Hitzarmen honen bidez diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko lortutako dirulaguntza guztien adierazpena.*
- d) *Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunarekiko ordainketak egunean daudela egiaztatzen duen agiria.*
- c) *Elkarrearen jarduerari dagokion honako dokumentazio hau:*

- *Diruz lagundutako den jardueraren diru-sarrera eta gastuen balantzea*
- *Diruz lagundutako urte naturalaren Jardueren Memoria*
- *Egindako jarduera bakoitzaren ebaluazio-fitxa eta egin izanaren zinpeko deklarazioa. Egindako jarduera bakoitzaren ebaluazio-fitxa eta egin izanaren zinpeko deklarazioa.*

Eta, hala gordeta gera dadin eta ados daudela adierazteko, bildutako pertsonak hitzarmena sinatzen dute aurretik aipatutako toki eta datan.

GENTZA ALAMILLO UDAETA, JOSU ZABALA ACHA,
Aiarako alkatea. Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluko presidentea

Sin.- Gentza Alamillo Udaeta. Sin.- Josu Zabala Acha.



Nire aurrean, IDAZKARIA,

Sin.- M^a Del Carmen Rojo Pitillas”.

Bigarrena.- *Alkate-udalburuari baimena ematea aipatutako hitzarmena sinatzeko.*

Hirugarrena.- *Aiaraldeko Euskalgintzaren Kontseilua Elkarteari erabaki hau jakinaraztea.*

Arespalditzan..- ALKATEA.- Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

Elektronikoki sinatutako dokumentua”.

Gai honen aldeko irizpena eman zuen Kultura, Kirol eta Gazteria Informazio Batzordeak, 2020ko urriaren 13an egindako ohiko bilkuran.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da eta aho batez, ohiko bozketan, erabaki du onestea transkribatutako erabaki-proposamena, idatzi den moduan.

6. Aiarako Udalaren eta IVAPen arteko Hitzarmenari buruzko Udalbatzaren erabaki-proposamena, 2020. urterako.- Jarraian, Batzordeari Aiarako Udalaren eta IVAPen arteko hitzarmenari dagokion erabaki-proposamenaren berri eman zaio. Horrek honako hau dio:

“ERABAKI-PROPOSAMENA

IKUSI DA.- Udalak interesa duela euskararen ezagutza eta erabilera udaleko arlo guztietan sustatzeko.

IKUSI DA.- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen eta Aiarako Udalaren arteko aurreko lankidetzeta-hitzarmena, hizkuntza-gaikuntza eta normalizazioaren ingurukoa. Hori amaituta zegoen.

IKUSI DA.- Aipatutako hitzarmenaren helburua da Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea eta Aiarako Udala lotzen dituen harreman juridikoa formalizatzea, Ogasun eta Herri Administrazioari sailburuaren 2005eko azaroaren 30eko Aginduaren aplikazioa daitezkeen ezarpenekin. Aipatutako agindu horren bidez, batetik, arautzen da Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (HAEE) Euskal Autonomia Erkidegoko herri-erakundeei eskainiko dien hizkuntza-prestakuntzako zerbitzua, eta bestetik, ezartzen dira euskara-ikastaroetara doazen udal-langileak ordezkatzeko dirulaguntzen arauak

IKUSI DA.- Aurreko atalak aipatzen duen harreman juridikoak honako ekintza-arlo hauek ekarriko ditu:

- *PLArako euskaldunizazio/alfabetizazio eta prestakuntza linguistikoko ikastaroak antolatzea.*
- *Euskara ikastaroetara doazenak ordezkatzeko dirulaguntzak (udal-administrazioetarako soilik).*



- Terminologia juridiko-administratiboa.
- Euskarazko administrazio-materialak sortu eta erabiltzea.

Horregatik guztiagatik, Udalbatza Osoari proposatu zaio honako ERABAKI hau hartzea:

Lehenengoa.- Onestea 2020 ekitaldirako Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen eta Aiarako Udalaren arteko lankidetzeta-hitzarmena, hizkuntza-gaikuntza eta normalizazioaren ingurukoa.

Bigarrena.- Alkate-udalburuari baimena ematea aipatutako hitzarmena sinatzeko.

Hirugarrena.- Erabaki hau Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari jakinaraztea.

Arespalditzan..- ALKATEA.- Sin.: *Gentza Alamillo Udaeta.*

Elektronikoki sinatutako dokumentua.

Gai honen aldeko irizpena eman zuen Euskara eta Hezkuntza Informazio Batzordeak, 2020ko urriaren 13an egindako ohiko bilkuran.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da eta aho batez, ohiko bozketan, erabaki du onestea transkribatutako erabaki-proposamena, idatzi den moduan.

7. Aiarako Udalaren eta “Aiaraldea Kooperatiba Elkartearen” arteko Hitzarmenari buruzko Udalbatzaren erabaki-proposamena, 2020. urterako.- Jarraian, Batzordeari Aiarako Udalaren eta Aiaraldea Kooperatiba Elkartearen arteko hitzarmenari dagokion erabaki-proposamenaren berri eman zaio. Horrek honako hau dio:

“ERABAKI-PROPOSAMENA

IKUSI DA.- Udalak interesa duela euskararen ezagutza eta erabilera udaleko arlo guztietan sustatzeko.

IKUSI DA.- Aiarako Udalaren eta AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEAREN arteko lankidetzeta-hitzarmenerako proposamena, erakundearen jarduerak 2020an izango dituen gastuen zati bat diruz laguntzeko.

AINZAT HARTU DA.- 2020ko udaleko aurrekontu luzatuan hitzarmen honek adierazten dituen gastuei aurre egiteko nahikoa diru dago.

Udalbatza Osoari proposatu zaio honako ERABAKI hau hartzea:

Lehenengoa.- Onestea Aiarako Udalaren eta AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEAREN arteko lankidetzeta-hitzarmena, 2020ko jarduerako gastuak ordaintzeko. Honela dio testuak:



**“AIARAKO UDALAREN ETA AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEAREN
2020KO HITZARMENA, EUSKARAZKO TOKIKO HEDABIDEAK SUSTATU ETA
FINANTZATZEKO”.**

Aiarako udaletxean, 2019ko ren (e)(a)n.

HONAKO HAUEK BILDU DIRA

Alde batetik, Aiarako Udaleko GENTZA ALAMILLO UDAETA alkate-udalburu jauna (NAN zk.: 44.686.448-R), Aiarako Udaleko idazkari M^a Del Carmen Rojo Pitillas andrearen laguntzarekin, bilkuran esandako guztia ziurtatzen duena.

Bestetik, LUIS XABIER UGALDE GULIAS jauna, AIARALDEAKO KOOPERATIBA ELKARTEKO presidentea, erakunde horren ordezkari, F-01468248 IFKarekin.

*Bi aldeek elkarri aitortzen diote erabateko gaitasun juridikoa eta **Lankidetz**a- **Hitzarmen** hau emateko eta betetzeko lan egiteko erabateko gaitasuna, eta, horretarako,*

HONAKO HAU ADIERAZI DUTE

Etorkizuneko informazioaren gizartean funtsezkoa da euskararen aldeko hurbileko komunikazio-espazioak irabaztea, eta are gehiago komunikazioak eta hedabideek hizkuntzaren normalizazioan duten garrantzia ikusita.

Horregatik, “AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEAK”, irabazi-asmorik gabeko eta gizarte-ekimeneko elkarte (2017 arte “Info-Aiaraldea Kultura eta Komunikazio Elkarte” izena zuen, eta, beraz, elkarte izatetik kooperatiba izatera igaro zen), zeina Aiarako eskualdean euskarazko komunikazioa sustatzeko sortu zuten, helburutzat du eskualdean euskarazko komunikazio-jarduerak eta hedabideak abian jarri eta garatzea, bai alor tradizionalak eta bai komunikazioaren alor berritzaileak landuz. Gizarte-kohesioaren alde ere egin nahi du, irabazi-asmorik gabe eta administrazioekiko eta ekonomia-, gizarte- eta kultura-eragileekiko elkarlanean.

Helburu horiek lortzeko, AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEAK eta AIARAKO UDALAK euskarazko tokiko hedabideak sustatu eta babesteko konpromisoa berretsi dute, eta, zehazki, AIARALDEA HEDABIDE TALDEAK sustatu eta kudeatzen dituen hedabideak: www.aiaraldea.eus webgunea (Aiaraldea Gaur izenekoa) eta hamabost egunean behin paperean argitaratzen den “Aiaraldea Hemen” aldizkaria; izan ere, hedabide horien bidez sustatzen da hizkuntza-normalizazioa, eta AIARAKO udalerrarentzat onuragarria da hori.

AIARAKO Udalak uste du udalerrirako interes publikoko proiektu bat dela. Alde horretatik, Eusko Jaurlaritzak “gizarte-ekimeneko” izaera aitortu dio kooperatibari.

*Beraz, erakundeek euskararen erabilera normalizatzeko duten parte-hartze aktiboa gauzatzeko, bi aldeek lankidetz*a-hitzarmen hau sinatu dute. Horren edukia jarraian idatzitakoa da:



KLAUSULAK

Lehenengoa: Hitzarmen honetan AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEAK eta AIARAKO UDALAK 2020an izango duten lankidetzaren xehetasunak zehazten dira, euskarazko hedabideei dagokienez. Lankidetzaren helburua epe luzekoa denez, bi alderdiek lankidetzaren urte honetan zehar garatzeko konpromisoa adierazten dute, eta, behin amaitu ondoren, hurrengo urterako baldintzak negoziatzeko.

Urte bakoitzeko lehenengo 3 hilabeteko epean zehar, Aiarako udalak hitzarmena berrituko duen edo ez erabakiko du, dagokion Informazio Batzordeak amaitutako urteari dagokion dokumentazioa eta hurrengo urterako baldintzak aztertu ondoren. Hori guztia AIARALDEKO EUSKALGINTZA KONTSEILUARI bidaliko dio.

Hitzarmen hau 2020. urterako sinatzen da eta horren iraupena 2020ko urtarrilaren 1 eta 2020ko abenduaren 31 bitartekoa izango da.

Bigarrena: Hitzarmena sinatzen den unetik, AIARAKO Udalak AIARALDEA HEDABIDE TALDEAREN jarduera eta kontu ekonomikoen berri izateko eskumena izango du

Horretarako, eta, bien arteko harremana eta lankidetzaren etengabekoak izateko, Aiarako Udalak komunikazio-taldearen finantzaketa xehatuaren, balorazioen eta urteko planaren berri izateko eskubidea izango du.

Era berean, eta, hitzarmena sinatu duten alderdietako batek hala eskatzen duenean, bi alderdiak bilduko dira, bai hitzarmenaren edukien jarraipena egiteko eta bai harekin lotutako beste xede baterako.

Hirugarrena: AIARAKO Udalak AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEARI honako ekarpen ekonomiko hau egiteko konpromisoa hartzen du:

- **2020. urtean: 2.040,30 €.**

Dirulaguntza honen ordainketa modua honakoa izango da: Aiarako Udalak dirulaguntzaren % 80 ordainduko du hitzarmena sinatu ondoren. Gainerako % 20a berriz, behin hurrengo klausulan adierazitako dokumentazioa aurkeztu ondoren ordainduko du.

Ekarpen ekonomikoa AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEAREN kontu korronteko ordainketaren bidez egingo da (Laboral Kutxa: ES55-3035/0045/21/0450079351).

Bestalde, AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEAK jasotako urteko zenbatekoaren bikoitza justifikatu beharko du, hitzarmen honen xede diren jardueren burutzeari begira.

Laugarrena: Hitzarmena sinatzen den unetik aurrera, AIARAKO Udalak, zeinak dirulaguntza emango dien Aiaraldea Gaur eta Aiaraldea Hemen hedabideei (AIARALDEA HEDABIDE TALDEAREN jabetzakoak), aintzatespen publikoa jasoko du: babesle modua agertuko da bi hedabideetan.



Udalaren logotipo normalizatua gehituko da webgunearen kreditu-informazioan eta hamabost egunean behin egingo den paperezko argitalpenean (posta-helbideak, egoitzak, etab.), hitzarmena indarrean dagoen bitartean.

Bosgarrena: Aiaraldea Hedabide Taldeak, informazioa tratatu eta hedatzeko orduan, edozein motatako eduki eta gaiak argitaratuko ditu. Independentea, plurala, orekatua eta parte-hartzailea izango da. *Beraz, alderdi politikoan eraginetik aldentu eta inpartzialtasuna zainduko du. Eskualdeko gainerako elkarteek eta edozein herritarrek hartu ahal izango dute parte webgunean.*

Seigarrena: *Iritzi-atalari dagokionez, edozein herritarrek izango du bi hedabide horietan bere iritzia emateko eskubidea eta aukera. Hedabideek, alderdikieratik aldentuta, iritzi politiko ezberdinetako pertsonen presentzia bermatuko dute, guztien arteko orekaren alde eginez.*

Zazpigarrena: *Aipatutako espiritu irekiarekin bat etorritik, hitzarmen honen xede diren hedabideetan mota guztietako gai eta edukiak jorratuko dira, pertsonenganako errespetua bermatuz, eta ez dira irainak eta difamazioak onartuko.*

Zortzigarrena: *Aiaraldea Gaur eta Aiaraldea Hemen euskara batuan idatziko dira, eta espazioa emango diete eskualdeko hizkuntza-aberastasunari eta aldaerei Hizkuntza irakurlearentzako eredu bihur daiteke: alde horretarik, ahalik eta eredurik onena eskaintzen ahaleginduko dira. Beraz, gutxieneko hizkuntza-kalitatea bermatuko da.*

Bederatzigarrena: Urteko udal dirulaguntzaren zenbatekoa (2.040,00€) **JUSTIFIKATZEKO**, honako dokumentazio hau aurkeztuko da:

a) *Jasotako dirulaguntza guztien aitortzea, bai publikoak eta bai pribatuak, diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko eskuratutakoak.*

b) *Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunarekiko ordainketak egunean daudela egiaztatzen duen agiria.*

c) *Jarduerari buruzko honako dokumentu hauek:*

- *Diruz lagundutako ekitaldiaren diru-sarrera eta gastuen balantzea*
- *Diruz lagundutako ekitaldiaren jarduera-memoria (egindako jarduera bakoitzaren ebaluazio-fitxa eta horiek egin izanaren zinpeko deklarazioa).*
- *Amaitutako urtearen memoria ekonomikoa (ekintzen gastua + funtzionamendu gastua), bere gastu eta diru-sarrerekin, faktura eta ordainketa agiri bakoitzarekin.*

Lehen estipulazioan jasotako baldintzak urratuz gero, ez da dirulaguntza esleituko, eta hasiera emango zaio aurrez ordaindutako zenbatekoak itzultzeko prozedurari.

Hitzarmen honetako bosgarren akordioan adierazitako beharrezko justifikazio hori 2020ko irailaren 30erako ez aurkeztetikotan, ez da dirulaguntzarik emango eta aurrez abonatutako zenbatekoak itzultzeko prozedura bat jarriko da abian.

Jarduera honetarako emango den dirulaguntza hau ez da bateragarria Udalak urtero deituriko gainerako dirulaguntzekin.



2021eko urtarrilaren 31 baino lehen, hau da, hitzarmen-urte berriaren aurretik:

- Urte berrirako aurrekontuaren zirriborroa.
- Urte berrirako jarduera-proiektuaren zirriborroa.
- Arabako Foru Aldundiaren eta Gizarte Segurantzaren ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu, egiaztatzen dutenak zor guztiak ordaindu dituela.

Horrela jasota gera dadin, bi alderdiek hitzarmena sinatzen dute xede bakarrerako, eta bi kopia sinatu dituzte, aurretik adierazitako data eta lekuan.

*GENTZA ALAMILLO UDAETA, LUIS XABIER UGALDE GULIAS,
Aiarako Udaleko alkatea. Aiaraldea Kooperatiba Elkarteko*

Sin.- Gentza Alamillo Udaeta Sin.- Luis Xabier Ugalde Gulias.

Idazkaria,

Sin.- M^a Del Carmen Rojo Pitillas."

Bigarrena.- *Alkate-presidenteari hitzarmen hau sinatzeko eskumena ematea*

Hirugarrena.- *AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEARI akordio honen berri ematea, dagokion hitzarmena sinatu dezan."*

Arespalditzan..- ALKATEA.- Sin.: *Gentza Alamillo Udaeta.*

Elektronikoki sinatutako dokumentua".

Gai honen aldeko irizpena eman zuen Euskara eta Hezkuntza Informazio Batzordeak, 2020ko urriaren 13an egindako ohiko bilkuran.

Udalbatza jakinaren ganean geratu da eta aho batez, ohiko bozketan, erabaki du onestea transkribatutako erabaki-proposamena, idatzi den moduan.

8.- Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Sailaren eta Aiarako Udalaren arteko Lankidetzeta-hitzarmena onesteko erabaki-proposamena, Eguneko Arretarako Landa Zentroa kudeatu eta mantentzeko 2020. urtean.- Jarraian Udalbatzari jakinarazi zaio Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Sailaren eta Aiarako Udalaren arteko Lankidetzeta-hitzarmenari dagokion erabaki-proposamena, Eguneko Arretarako Landa Zentroa kudeatu eta mantentzeko 2020. urtean. Horrek honako hau dio:

"ERABAKI-PROPOSAMENA

IKUSI DA.- Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Sailak udal honetara bidali duela Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Sailaren eta Aiarako Udalaren arteko Lankidetzeta-



hitzarmenaren eredia, 2020. urtean Eguneko Arretarako Landa Zentroa kudeatu eta mantentzeko.

AINZAT HARTU DA.- 2020ko udal-aurrekontuan hitzarmen honek sortzen dituen gastuei aurre egiteko behar besteko kreditu egokia dagoela.

Hori guztia dela eta, Udalbatzari proposatzen zaio honako ERABAKI hau onetsi dezala:

Lehenengoa.- Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuak Sailaren eta Aiarako Udalaren arteko lankidetzaren zirriborroa, Eguneko Arretarako Landa Zentroa kudeatzeko eta mantentzeko (2020).

“ARABAKO FORU ALDUNDIKO GIZARTE ZERBITZU SAILAK ETA AIARAKO UDALAK EGUNEKO ARRETARAKO LANDA ZENTROA KUDEATZEKO ETA MANTENTZEKO SINATUTAKO LANKIDETZA-HITZARMENA.

Gasteizen, 2020ko ____ aren ____ (e)(a)n.

Alde batetik, Emilio Sola Ballojera jauna, Gizarte Politiken Foru diputatua, Arabako Foru Aldundiaren izenean eta horren ordezkari gisa, uztailaren 5eko Diputatu Nagusiaren 325/2019 Foru Dekretuaren izendapenaren arabera; gainera, jardun egiten du abenduaren 18ko Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko 52/1992 Foru Dekretuak emandako ahalmenen arabera.0}

Beste alde batetik, Gentza Alamillo Udaeta jauna, Aiarako Udaleko alkate-udalburua.

Bi aldeek beren karguei dagozkien eskumen eta atribuzioen arabera jarduten dute eta dokumentu hau sinatzeko gaitasuna onartzen diote elkarri. Ondorioz,

HONAKO HAU ADIERAZTEN DUTE

Lehenengoa.- Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Sailak bere xedeen artean Arabako Lurralde Historikoa osatzen duten pertsona guztien bizitza autonomoa sustatu eta gauzatzea dago. Xede hori bere Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea erakunde autonomoaren bidez gauzatzen du.

Bigarrena.- Adinekoen gizarte-beharrak asetzeko Sailaren premiazko arreta-elementua da, batez ere autonomia fisikoa eta/edo soziala mugatu dezaketen gaitzak dituzten, baina aldi berean gizartearekin eta bere inguru natural eta familiako inguruarekin lotura izaten jarraitzen duten adineko pertsona guztien bizi-kalitatea hobetzea.

Hirugarrena.- Aiarako Udalak badaki pertsona horiek dituzten beharrak estali behar dituela eta behar horiek pertsona horien eremuan bertan estali behar direla. Horregatik du bere eskumenekoa den Eguneko Arretarako Landa Zentroa.

Laugarrena.- Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Politiken Sailari atxikitako organoa da eta Aiarako Udalarekin batera, 2009. urtetik



Arespalditzako Eguneko Arretarako Landa Zentroa kudeatu eta mantentzen egon dira. Sinatutako azken hitzarmena 2015eko uztailaren 21ekoa da.

Bosgarrena.- Arabako Foru Aldundiaren Gobernu-kontseiluaren abenduaren 27ko 856/2019 Erabakiaren bidez, jarraipenik gabeko hitzarmenaren funtzionamendua mantentzeko beharra ikusita, 2020 ekitaldian zehar hitzarmen honen jarraipena onetsi da eta dokumentu honen bidez dena zehaztuko da.

Seigarrena.- Maiatzaren 26ko Gobernu-kontseiluaren 222/2020 Erabakiaren bidez, abenduaren 26ko Arabako Foru Aldundiaren Gobernu-kontseiluaren 904/2016 Erabakiaren bigarren luzapena onetsi da, udalerriko gizarte-zerbitzuak emateko aldi batean emateko, Aldundiak adierazitako baldintzetan, 2020ko abenduaren 31ra arte.

Zazpigarrena.- Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 6ko 12/2008 Legeak ezartzen du bere printzipio orokorretan erantzukizun publikoa dagoela. Gainera, adierazten du botere publikoek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan araututako prestazioen eta zerbitzuen eskaintza eta horietaz baliatzeko modua bermatuko dutela, baita irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekintzarekin ere. Halaber, baieztatzen du gizonen eta emakumeen arteko berdintasunera hurbildu ahala gertatzen diren aldaketa sozialei egokitu behar zaizkiela gizarte-zerbitzuak. Horretarako, emakumeak gizarteratzen laguntzen duten jarduerak eta zerbitzuak sustatuko dira.

Zortzigarrena.- Bi aldeak ados daude 2020 ekitaldian zehar programa honen jarraipen eta garapenerako baliabide gisa funtzionatuko duen lankidetzatresna mantentzearekin ados daude, baita hori sinatuko den baldintzetan ere. Ondorioz, honako hauen bidez hitzarmena sinatzea erabaki dute:

KLAUSULAK

Lehenengoa.- Dokumentu honen xedea da Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Politiken Sailaren eta Aiarako Udalaren lankidetzatresna mekanismoak berriz ere arautzea, Eguneko Arretarako Landa Zentroa kudeatu eta funtzionatzeko. Hori bere eskumenekoa den udalerrian dago eta aldi berean erabiltzeko guztira 10 leku daude.

Bigarrena.- Aiarako Udalak zentroa kudeatzeko eta bertan gauzatzen diren jarduerak kudeatzeko konpromisoa hartze du, bi aldeek hartutako erabakiaren arabera. Hori dokumentu honetan dago erantsita eta horrelako zentroaren garapen onerako zein horren jarraipenerako beharrezko ekintzak gauzatzea Udalaren erantzukizuna izango da.

Zerbitzuak genero-perspektiba izango du bere programazio eta jardueretan, eta, bereziki, hizkuntzaren erabilera ez-sexista egingo du, emakumeak eta gizonak duintasun eta eskubide berekin tratatuko ditu eta genero rol eta estereotipoen inguruko hausnarketak gauzatuko ditu eguneroko jardueretan. Edonola ere, hori guztia indarrean dagoen araudi-markoaren barnean egingo da, Gizarte Politiken Sailak ezarritako informazio-printzipioen arabera adinekoei zuzendutako titulartasun publikoko gizarte-zerbitzuak kudeatzeko.

Hirugarrena.- Aiarako Udalak egunean zehar hainbat zerbitzu eskainiko ditu Eguneko Arretarako Landa Zentrora, eguneroko jarduerak gauzatzen laguntzeko, baita adinekoei zuzendutako sektoreko aisialdiko jarduerak gauzatzen laguntzeko. Era berean, zentroan obrarik



ez egiteko konpromisoa hartzen du eta ez ditu bertako instalazioak hitzarmenean ezarritako beste helburuetara zuzenduko aurretiaz Gizarte Ongizateko Foru Erakundeak hori onetsi gabe.

Laugarrena.- Aiarako Udalak hitzarmen honek iraun bitartean bi aldeek erabiltzaile kopuruaren araberako langileak kontratatuko ditu eta bakoitzaren profila eta bakoitzak emandako zerbitzuak hartuko ditu kontuan, Eguneko Arretarako Landa Zentroak ongi funtzionatzeko eta horren kudeaketa ekonomikoa behar bezala gauzatzeko.

Era berean, Aiarako Udalak Gizarte Ongizateko Foru Erakundeari jakinaraziko dio programak gauzatzean eta langileak kontratatzean egon daitekeen edozein aldaketa. Gainera, eskatutako edozein dokumentazio emango dio aipatutako erakundeari. Edonola ere, hitzarmen honetan edozein aldaketa egiteko, sinatzen duen Erakundearen berariazko baimena izan beharko da.

Bosgarrena.- Gizarte Ongizateko Foru Erakundeak eta Foru Administrazioak orokorrean ez du inongo erantzukizunik izango hitzarmen hau gauzatzean egon daitekeen edozein lan-arloko gairi dagokionez. Aiarako Udalaren erantzukizuna izango da langileen lana antolatzea eta zentroan borondatez laguntzen duten pertsonen lan-zerrenda kudeatzea.

Seigarrena.- Aiarako udalak hitzarmena indarrean sartzen denetik egunean mantenduko ditu bere zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak Era berean, egunean izan beharko ditu Foru Administrazioarekiko dirulaguntzak itzultzeagatik betebeharren ordainketa. Era berean, adierazi beharko du ez duela ezarririk indarrean dagoen legerian adierazitako inongo debekurik.

Zazpigarrena.- Aiarako Udalak, Udaleko Lehenen Mailako Arretarako Gizarte Zerbitzuaren bidez, aurkezten diren eskaerak jasoko ditu eta dagokion administrazio-espeditentea egingo du.

Gizarte Ongizateko Foru Erakundearen barnean ezarritako batzorde batek baloratuko ditu eskaerak eta pertsona bakoitzaren sarrera-ordena ezarriko du. Aipatutako batzorde hori Esku-hartze sozialeko Arloko gizarte-koordinazioko langilek eta gizarte-langileek osatuko dute.

Gizarte Ongizateko Foru Erakundeak hautatuko ditu pertsonak eta udalerrian bizi diren pertsonen emango die lehentasuna. Hau da, ezohiko egoeraren bat egon ezean, puntuazio bereko egoeren aurrean, Aiaran bizi diren pertsonen izango dute lehentasuna. Hautatutako pertsonen Gizarte Ongizateko Foru Erakundeari ordaindu beharko diote indarrean dagoen prezio publikoak arautzen dituen araudiaren arabera ezarritako prezio publikoa. Horretarako eta dagokion prezioa jakiteko, dagokion ebazpena emango da.

Zortzigarrena.- Gizarte Politiken Sailak, Gizarte Ongizateko Foru Erakundearen dauden programa gardenen bidez, mugikortasun zailtasunak dituzten pertsonen edo Zentroa dagoen udalerritik kanpo bizi diren pertsonen lekualdaketa bere gain hartuko du.

Bederatzigarrena.- Zentroa kudeatu eta mantentzeko beharrezko gastuaren aurrekontua bi aldeek erabaki dute eta adostu da 62.963,02 eurokoa izatea (HIRUROGEITA BI MILA BEDERATZIEHUN ETA HIRUROGEITA HIRU EURO ETA BI ZENTIMO). Zentroaren funtzionamendu eta kudeaketari 58.750,00 euro esleituko zaizkio (BERROGEITA HEMEZORTZI MILA ZAZPIEHUN ETA BERROGEITA HAMAR EURO) eta lokalen erabilerari 4.213,02 euro (LAU MILA BERREHUN ETA HAMAHIRU EURO ETA BI ZENTIMO).

Foru Administrazioak finantzaketa emango dio Aiarako Udalari Gizarte Ongizateko Foru Erakundearen bidez eta Gizarte Ongizateko Foru Erakundearen 2020ko aurrekontuaren kargua izango du 1.80204.0421.250.00.20 partidari ("Eguneko Arretarako Landa Zentroetarako



udalen hitzarmenak”); finantzatuko den gehieneko zenbatekoa 50.370,42 euro izango da (BERROGEITA HAMAR MILA HIRUREHUN ETA HIRUROGEITA HAMAR EURO ETA BERROGEITA BI ZENTIMO), eta ez du likidatutako gastuaren % 80 gaindituko. Udalak aurrekontuaren gainerako zenbatekoa eman beharko du.

Hamargarrena.- Gizarte Politiken Sailaren ekarpenaren ordainketa Gizarte Ongizateko Foru Erakundearen bidez egingo da, eta honako modu honetan:

- Ekitaldi bakoitzaren urtarrilaren 31 baino lehen, hiruhileko bati dagokion % 70 ordainduko da banku-transferentzia bidez.
- Hiruhilekoan behin, eta zerbitzua ematen hasi eta hurrengo hiruhilekoko lehenengo 10 egunetan, Aiarako Udalak amaitutako epeari dagokion gastu eta diru-sarreraren likidazioa aurkeztuko du, baita dagokion organoak (Idazkaritza / Diruzaintza) sinatutako egiaztagiria ere, Foru Administrazioari adierazteko hitzarmen honen xede den zerbitzuarekin lotutako fakturak ordaintzeko erabili direla.
- Bi hiruhilekoan behin eta hurrengo hiruhilekoko 30. eguna baino lehen, Gizarte Ongizateko Foru Erakundeak aurreko hiruhilekoari dagokion zenbatekoa ordainduko du, aurreko puntuan jasotako likidazioaren emaitza diren gastuen arabera. Ordainketa banku-transferentziaren bidez egingo da. Edonola ere, ekitaldiko azken hiruhilekoan, hitzarmenaren azken likidazioaren ondoren geratutako zenbatekoa erregularizatuko da.

Hamaikagarrena.- Hitzarmena iraungitzean eta luzapen guztiak amaitzean, edonola ere, hurrengo ekitaldiko urtarrilaren 12a baino lehen, Aiarako Udalak honako hauek aurkeztu beharko ditu:

- Gauzatutako jardueren deskribapen-memoria eta urteko ebaluazioa, jardueren adierazpenarekin eta lortutako emaitzekin. Jasota geratu beharko dira emakumeen eta gizonen berdintasunera zuzendutako jarduerak eta sexuka banatutako datuak aurkeztu beharko dira.
- Gastu eta diru-sarreraren zerrenda eta horien justifikazioa, zerbitzuak finantzatu dituzten eta diruz lagundu daitezkeen beste diru-sarrera batzuk aintzat hartuta eta aipatutakoen zenbatekoa eta jatorria adierazita.

Hamabigarrena.- Aurreikusi gabeko edo ezustean gertatutako aurrekontuko edozein gertakari baloratu, ebatzi edo konpontzeko, Aiarako Udalak Gizarte Politiken Sailean itxiera aurreikuspen bat aurkeztu beharko du hitzarmena indarrean dagoen ekitaldi bakoitzeko urriaren 1a baino lehen.

Aurrekontuaren desbideratzea, gorantz, Gizarte Politiketako Sailak alde aurretik eta berariaz onetsi beharko du.

Hamahirugarrena.- Hitzarmen honetako klausulak interpretatzeko zein horren xedea den zerbitzuaren jarraipena eta balorazioa egiteko, Batzorde Tekniko Paritario bat osatuko da. Hori honako hauek osatuko dute:

- Gizarte Ongizateko Foru Erakundeak izendatutako pertsona bat, hitzarmenaren jarraipen teknikoa egingo duena.
- Aiarako Udalak izendatutako pertsona bat.

Aipatutako batzordea gutxienez urtean behin bildu beharko da eta bileretan landutakoaren txosten bat egin beharko du. Aipatutako batzordeak gaia ezagutzen duen langileen aholkua jaso



ahal izango du, horrek izan ditzakeen zalantzetan. Edonola ere, batzordeak nahi bezainbeste bildu ahal izango du, bietako edozein alde eskatuta.

Hamalauugarrena.- Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Sailak zentroa dagozkion jarduerak egiteko erabili ahal izango du, aurretiaz Aiarako Udalari jakinarazita.

Hamabosgarrena.- Hitzarmen hau indarrean egongo da sinatzen denetik eta eragina izango du 2020ko urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 31ra arte.

Hamaseigarrena.- Aiarako Udalak, hitzarmen honen xede diren eta erabiltzaileekin harreman zuzena duten jarduerak gauzatzean, pertsona horien hizkuntza-eskubideak betetzeko aukera emango du. Era berean, hori egingo du Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuan, Euskararen Erabilera Normalizatzeko 10/1982 Legean eta Euskadiko Administrazio Publikoaren normalizazio-prozesuak arautzen dituen 86/1997 Dekretuan jasotako xedapenen arabera.

Hamazazpigarrena.- Bi aldeek adierazi dute ezagutzen dutela Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako 3/2007 Lege Organikoan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean eta 2010ean onetsitako 2010ean onetsitako Emakume eta Gizonen Berdintasunerako III. Plan Foralean ezarritakoa. Gainera, genero ikuspuntua gaineratzeko zenbait neurri hartzeko konpromisoa hartuko dute gain, zehazki, ondokoak: mintzaira sexista ez erabiltzea, datuak sexuen arabera jaso eta aurkeztea eta hitzarmen honen babespean egiten diren jardueretan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren helburua jasotzea.

Hemezortzigarrena.- Bi aldeek adierazi dute ezagutzen dutela abenduaren 5eko Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 3/2018 Lege Organikoan, eta 2016/679 (EB) Erregelamenduan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarenean, 2016ko apirilaren 27koan, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duenean ezarritakoa. Gainera, adierazi dute ezagutzen dutela momentuan ezarri beharko den gainerako datuak babesteari buruzko araudia eta hitzarmen honen barnean dauden pertsona fisikoen datuak aipatutako arauetan ezarritakoaren arabera landuko dituzte.

Hemeretzigarrena.- Hitzarmen hau indargabetzeko arrazoi, prozedura eta eraginak:

1. Kontratua indargabetzeko kausak:

a. Aiarako Udalaren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko adostasuna.

b. Hitzarmenak sortutako eginbeharrak ez betetzea.

c. Hitzarmenaren helburua gauzatu ezin izatea Gizarte Ongizateko Foru Erakundeak teknikoki ezarritako baldintzetan edo jarduera gauzatzen jarraitzean, interes publikoa larriki kaltetu ahal izatea.

d. Izaera espezifikotik eratorritako beste edozein.



2. Indargabetze-prozedura:

a. Hitzarmena indargabetu ahal izango du onetsi zuen organo berak, Aiarako Udalari eskatu ondoren.

b. Bi aldeak ados jarrita indargabetu ahal izango da, ez badago Aiarako Udalari egotzi ahal zaion beste ebazpen arrazoirik.

c. Hitzarmena indargabetzeko proposamena Arabako Foru Aldundiak egiten duenean, Aiarako Udalari entzunaldia emango zaio hamar egun naturaleko epean. Udalak ez balu inongo alegaziorik aurkeztuko, ulertuko litzateke ez duela hitzarmenarekiko aurkaritzarik.

d. Lege Zerbitzuaren aurretiazko txostena eskatuko da une oro.

3. Indargabetzearen eraginak bi aldeek erabakitakora egokitu beharko dira.

Hogeigarrena.- Aiarako Udalak hitzarmen honen xede diren programen publizitate guztietan Arabako Foru Aldundiaren lankidetzara adierazi beharko du.

Hitzarmen honen xedearekin loturarik duten komunikazio-, publizitate- edo propaganda-ekintza guztiek gizon eta emakumeen arteko hizkera inklusiboa erabili beharko dute eta pertsona guztiak, bakoitzaren sexua dena delakoa izanda, gizatasun-duintasun berarekin tratatzen dituzten irudiak argitaratu beharko dira. Era berean, aurretiaz Arabako Foru Aldundiak baimendu beharko ditu eta horrek bere erakunde-irudiarekiko ezarritako baldintzen arabera gauzatu beharko dira. Era berean, edozein ekintza publiko edo pribatu, aurkezpenak, sari-banaketak, klausurak eta antzekoak antolatzean (datak, ordutegiak, ekintza gauzatzea, gonbidatuak, etab.), deitu aurretiaz adostu beharko dira eta Aldundiak onetsi beharko ditu. Edonola ere, aipatutako jardueretan aktiboki egotea eta horien buru izatea Hitzarmen hau sinatzen duten bi aldeek eskumenekoa izango da soilik eta AFaren Protokoloa eta Harreman Publikoetako Departamentu edo Zerbitzuak arautuko du.

Hogeita zazpigarrena.- Hitzarmen honek izaera juridiko-administratiboa du eta Administrazioarekiko auzien Epaitegiaren legezko-aginduaren arabera izango da.

Azaldutako guztiarekin ados daudela frogatzeko, alderdiek hitzarmenaren hiru ale sinatu dituzte, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.

Emilio Sola Ballojera.

Gentza Alamillo Udaeta.

*Gizarte Politiken foru-diputatu eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko lehendakaria.
Diputado Foral de Servicios Sociales y
Presidente del consejo de Administración del
Instituto Foral de Bienestar Social.*

*Aiarako Udalako Alkatea.
Alcalde del Ayuntamiento de Ayala.*



I. ERANSKINA

Aiara udalerriko Eguneko Arretarako Landa Zentroa komunitatearena da, integratzailea, prebentiboa eta arretarakoa. Gainera, eguneko zenbait zerbitzu eskaintzen ditu egunerokotasuneko jardueretan laguntzeko, baita aisialdiko jardueretan ere. Zerbitzua pertsona nagusiei bideratuta dago, autonomia maila ona badute eta lagun eta familiaren laguntza-sarea badute, etxean bizi ahal izateko eta bizi kalitate ona izaten jarraitu ahal izateko.

Aipatutako zentroa erabiltzaileen ezaugarri eta beharren arabera, ordutegi osoan edo partzialean erabili ahal izango da.

Aiarako Eguneko Arretarako Landa Zentroa Udalaren jabetzakoa da eta Arabako Foru Aldundiarekin hitzarmen bat ezarri da horren jarraipen teknikoa eta finantzaketa gauzatzeko.

HELBURUAK

Aiarako Eguneko Arretarako Landa zentroak honako helburu hauek bete nahi ditu:

- *Adineko pertsonen arretan erantzunkidetasun soziala onar dadin bultzatzea, laguntza-sareei laguntza ematearen bidez eta sare horiek beren gain hartzen dituzten zamak liberalizatzeko aukera ematearen bidez. Ondorioz, bakarrik bizi diren adineko pertsoneri eta beren zaintzaz eta arretaz arduratzen diren pertsoneri laguntza emango zaie.*
- *Adineko pertsoneri beren ingurune sozialean gelditzea ahalbidetzea, behar duten zaintza komunitatean bertan eskainiz.*
- *Adineko pertsonen autonomia, integrazioa eta gizartean parte hartzea mantentzea sustatzea. Horretarako, prebentzio izaerako programak bultzatzen dira, gaitasun funtzional eta sozialak eta jarduera psikikoa mantentzeko prestazioak eta zaintza arinak ematen dira, aisialdia erabiliz eta gizarte, kirol eta bestelako jarduerak garatuz, eta erabiltzaileek zentroen funtzionamenduan parte hartzea bultzatzen da.*
- *Adineko pertsonen bizikidetzarako espazioa izatea, kolektibo honen premiak detektatzeko balio duena, arreta zerbitzu intentsuagoen eskaera atzeratuz.*
- *Zerbitzu hauek eta beste komunitate-zerbitzu batzuk egiten diren biztanle gune txikien arteko komunikazioa ahalbidetzea.*

ONURADUNAK

1. *65 urtetik gorako pertsonak, Arabako Lurralde Historikoan erroldatuta eta bizi direnak behintzat urtebetez eskaera egin baino lehen, zerbitzu horiek egiten diren herrietan edo hurbileko herrietan (hara joateko aukera baldin badute), betiere euren etxean eta ingurunean jarraitzeko laguntza-baliabide bat behar badute. Zenbait egoera berezi baloratu daitezke, adibidez, familia-errotazioa.*



2. *Honako pertsona hauek izango dute Zigoitiko Eguneko Arretarako Landa Zentroan lehentasunezko arreta:*
 - a) *Bakarrik bizi diren edo beste adineko pertsona batekin bizi diren adineko pertsonak, ahultasun egoeraren bat ematen bada.*
 - b) *Adineko pertsonak familiako beste kide batzuekin bizi badira baina familia horrek laguntza behar badu adinekoa zaintzeko, konpainia eskaintzeko, etab.*
 - c) *Autonomia maila aldakorra duten adineko pertsonak, Eguneko Bizitzarako Jardueretarako autonomia duten pertsonak zein jarduera horiek egiteko zailtasunak dituztenak, betiere euren egoera fisiko edo eta psikikoa ez bada oso txarra.*
 - d) *Narriadura edo gizarte isolamendua dela-eta, gizarte harremanak hobetzeko edo eta handitzeko, gizarteratzea eta gizarte parte-hartzea hobetzeko laguntza eta gizarte-gaitasunak behar dituzten adineko pertsonak.*
3. *Zerbitzu hauen arreta eremutik kanpo geldituko dira mendetasun maila handia duten eta baliabide berezia edo arreta handiagoa behar dituzten pertsonak, baita bizikidetza zailtzen dituzten portaera-nahasteak dituzten pertsonak ere*

ZERBITZUEN ESKAINTZA

*Egun osoko jarduera
Egun erdiko jarduera goizean
Egun erdiko jarduera arratsaldean
Jantoki zerbitzua
Komun geriatrikoko zerbitzua
Egokitutako garraiorako zerbitzua*

PRESTAZIOAK

1. *Zentroen azpiegituraren arabera eta aipatuta malgutasunari erantzunez, ondoko zerbitzuak eskaini ahal izango dira:*
 - a) *Pertsona erabiltzaileen bizi kalitatea mantentzera eta hobetzera bideratutako zerbitzuak:*
 - . Aisialdia eta denbora librerako jarduerak.*
 - . Adinari egokitutako jarduera fisikoa.*
 - . Higieneko zaintza pertsonalak, komun geriatrikoa.*
 - . Jantoki-zerbitzua.*
 - . Elikatzeko laguntza.*
 - b) *Autonomia mantentzeko edo eta lehengoratzeko zerbitzuak.*
 - . Mendekotasun-egoerak prebenitzea.*
 - . Autonomia pertsonala sustatzea.*
 - . Pertsonari laguntzeko gizarte sarearen jarduerari zuzendutako gizarte eta familia arloko lana.*
 - . Heziketa lana, erabiltzaileari beste pertsona baten laguntza behar ez izateko moduko baliabideak ematera zuzendutakoa.*



. Heziketa lana, pertsonak bere inguruan laguntza lortzeko trebetasunak lor ditzan eta, ahal den neurrian, mendekotasun harremanak izan beharrean, elkarrekikotasun harremanak ezartzeko.

c) *Gizartean integratzea eta komunitateko baliabideez gozatzea errazten duten laguntzak:*

- . Haien komunitatean dauden ekintzetan, baliabideetan edo taldeetan integratzea.
- . Elkarrekiko laguntza eta elkarbizitza.

d) *Zentroa dagoen herritik hurbil dauden herrietan bizi diren pertsonentzako garraioa, edo herrian bizi baina euren egoera fisikoagatik zentrorra joan ezin duten pertsonentzako garraioa.*

PERTSONAK ONARTZEKO PROTOKOLOA

Pertsonak, ondokoetan xedatutakoaren arabera onartuko dira: Diputatuen Kontseiluaren maiatzaren 8ko 45/2007 Foru Dekretua (mendekotasun egoera onartuta ez duten pertsonak Arabako Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen Foru Sarera sartzeko eta lekuz aldatzeko erregimena arautzen duen arautegia onartu du Foru Dekretu horrek, pertsona horiek sarearen erabiltzaileak izan behar dute) eta Diputatuen Kontseiluaren 36/2014 Foru Dekretua, ekainaren 22koa (arautzen duena mendetasun egoera aitortzeko, ezintasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura, bai eta, baldintza horiek emanaz gero, Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura ere).

ERAKUNDE BIREN ARTEKO KOORDINAZIOA ETA DESBIDERATZEA

Eskatzailearen helbidearen arabera dagokion Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak bideratuko du espedientea, maiatzaren 8ko Kontseiluen Diputatuen 45/2007 Foru Dekretuak eta uztailaren 22ko Kontseiluaren Diputatuaren 36/2014 Foru Dekretuak xedatutakoaren arabera. Zerbitzu horrek Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari bidaliko dio, Gizartegintza Arloari, eta honek balorazioa egingo du, akta burutuko du eta ebazteko proposamena egingo du. Ebazpen proposamen hori Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen kudeatzailetzako zuzendaritzara bidaliko da. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak informazioa jasoko du eta Batzordearen akta zein ebazpena ikus dezake modu telematikoan, pertsona bakoitzaren sarrera/baja/aldaketa, etab. egin dezan.

Arlo teknikoari dagokionez, aldizkako koordinazio batzuk finkatuko dira Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren eta baliabide honen jarraipenaren ardura duen Gizartegintza Arloko langile teknikoaren artean”.

Bigarrena.- Alkate jaunari baimena ematea dena sinatzeko eta Arabako Foru Aldundira bidaltzea.

Arespalditzan.- ALKATEA.- Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

Elektronikoki sinatutako dokumentua”.

Gizarte eta Osasuna, Berdintasuna eta Immigrazioa eta Adinekoen Informazio Batzordeak 2020ko urriaren 13an egindako bilkuran, erabaki hau hartzeko onespina eman zuen.



Udalbatza jakinaren gainean geratu da eta aho batez onetsi du, ohiko bozketan, erabaki-proposamena idatzi den moduan onestea.

9.- Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Sailaren eta Aiarako Udalaren arteko Lankidetzeta-hitzarmena onesteko erabaki-proposamena, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak emateko 2020. urtean.- Jarraian Udalbatzari jakinarazi zaio Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Sailaren eta Aiarako Udalaren arteko Lankidetzeta-hitzarmenari dagokion erabaki-proposamena, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak emateko 2020. urtean. Horrek honako hau dio:

“ERABAKI-PROPOSAMENA

IKUSI DA.- Beharrezkoa da Arabako Foru Aldundiarekin hitzarmen bat sinatzean herriko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak ematea gauzatzeko eta horren garapenean laguntzeko tresna bat ezartzeko.

IKUSI DA.- Aiarako Udalaren mendeko udal-eskumeneko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak emateko lankidetzeta-markoa. Aiarako Udalak aipatutako zerbitzua Aiara eta Okondoko herritarrei eskaintzen die.

IKUSI DA.- Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Sailaren eta Aiarako Udalaren arteko Lankidetzeta-hitzarmenaren eredia, 2020. urtean Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak emateko. Lankidetzeta-hitzarmena Arabako Foru Aldundiak udal honi bidali zion 2020ko irailaren 24an.

Hori guztia dela eta, Udalbatzari proposatzen zaio honako **ERABAKI** hau onetsi dezala:

Lehenengoa.- Onestea Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Sailaren eta Aiarako Udalaren arteko Lankidetzeta-hitzarmenaren eredia, 2020. urtean Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak emateko. Lankidetzeta-hitzarmena Arabako Foru Aldundiak udal honi bidali zion 2020ko irailaren 24an.

Bigarrena.- Alkate-udalburuari ahalmena ematea, hitzarmena formalizatzeko beharrezko dokumentu guztiak sinatu ditzan.

Hirugarrena.- Aipatutako Hitzarmenaren kopia bat, Udaleko alkate-udalburuak behar bezala sinatu ondoren, Arabako Foru Aldundiari bidaltzea, horren jakinaren gainean egoteko eta horren ondoreetarako.

Arespalditzan.- ALKATEA.- Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

Elektronikoki sinatutako dokumentua”.

Gizarte eta Osasuna, Berdintasuna eta Immigrazioa eta Adinekoen Informazio Batzordeak 2020ko urriaren 13an egindako bilkuran, erabaki hau hartzeko onespena eman zuen.



Karmele Población Martínez (EH-BILDU) zinegotzi andreak adierazi du bere taldea hitzarmenaren alde dagoela, baina galdera bat dutela. Adierazi du hitzarmena indarrean egongo dela abenduaren 31ra arte, baina zer gertatuko da gizarte zerbitzuen kudeaketari dagokionez?

Alkate jaunak erantzun du oraindik ez dakiela, baina horretan Aldundia eta EUDEL lanean ari direla. Edonola ere, gauza bat da gizarte zerbitzuen maparen antolaketa eta beste gauza bat Hitzarmen hau, honek soilik Udaleko gizarte-langilearen lanpostuaren finantzaketa arautzen duelako.

Marian Mendiguren Mendibil (EH-BILDU) zinegotzi andreak adierazi du badakitela zein den Hitzarmenaren edukia, baina besteari dagokionez, beste ezer dago?

Gentza Alamillo Udatea (EAJ-PNV) alkate jaunak esan du oraingoz ez duela informazio hori, baina Eudelen Lurralde-batzordean alderdi guztiek dutela ordezkapena eta bertan erantzungo diote, bertan lantzen ari delako informazio hori.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da eta aho batez onetsi du, ohiko bozketan, erabaki-proposamena idatzi den moduan onestea.

10.- Aiarako Udalaren eta Menagaraiko Amor Misericordioso Ikastolaren arteko Lankidetzaz-hitzarmena onesteko erabaki-proposamena 2020. urterako. Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio Aiarako Udalaren eta Menagaraiko Amor Misericordioso Ikastolaren arteko Lankidetzaz-hitzarmena 2020. urterako. Horrek honako hau dio:

“ERABAKI-PROPOSAMENA

IKUSI DA.- Menagaraiko Amor Misericordioso ikastetxeak bere zentroan hartutako neska ikasleekin egiten duen eginkizun soziala eta Udalak lan hori sustatzeko duen interesa.

IKUSI DA.- Aiarako Udalak Amor Misericordioso ikastetxearekin eginiko lankidetzaz-hitzarmena, hain zuzen ere, 2020. urtean aipatu zentroak bere ikasleekin abiarazten dituen ekimenak eta ekintzak diruz laguntzeko.

AINTZAT HARTU DA.- 2020ko udal-aurrekontuan hitzarmen honek sortzen dituen gastuei aurre egiteko behar besteko kreditu egokia dagoela.

Udalbatza Osoari proposatu zaio honako **ERABAKI** hau hartzea:

Lehenengoa.- Onestea Aiarako Udalak Amor Misericordioso ikastetxearekin eginiko lankidetzaz-hitzarmena, hain zuzen ere, 2020. urtean aipatu zentroak bere ikasleekin abiarazten dituen ekimenak eta ekintzak diruz laguntzeko.

“AIARAKO UDALAREN ETA MENAGARAIKO AMOR MISERICORDIOSO IKASTOLAREN LANKIDETZAZ HITZARMENA. 2020

Arespalditzan, 20...(e)koaren(e)(a)n



HONAKO HAUEK BILDU DIRA

Alde batetik, GENTZA ALAMILLO UDATEA, Ayuntamiento de Ayala-Aiarako Udaletxeko alkate-udalburua (NAN zk.: 44686448-R), Ayuntamiento de Ayala-Aiarako Udaletxeko idazkari M^a DEL CARMEN ROJO PITILLAS andreak (NAN zk.: 22.728.430-G) lagunduta, ekitaldiaren fede eman baitu.

Beste alde batetik, Elisa PELAZ BAÑOS andrea, adinez nagusikoa (NAN zk.:), Menagaraiko AMOR MISERICORDIOSO Ikastolako zuzendaria.

ESKU HARTZEN DUTE

Lehenengoak, Aiarako Udaleko alkate-udalburu gisa, toki erakunde honen izenean eta ordezkartzan, horretarako gaitasuna eta eskumena baitu Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearekin bat etorritz.

Bigarrena, AMOR MISERICORDIOSO Ikastolaren izenean (IFK: R-0100129-F) dago; Ikastolak berak emandako egiaztagiri baten bidez hautatutakoa izan da eta zuzendari izendapena jasotzen duen aktaren fotokopia aurkeztu du (hitzarmen honetan atxiki da 1. dokumentu gisa.

*Bi aldeek elkarri aitortzen diote erabateko gaitasun juridikoa eta **Lankidetz**a-hitzarmen hau emateko eta betetzeko lan egiteko erabateko gaitasuna, eta, horretarako*

HONAKO HAU ADIERAZTEN DUTE

I.- *Aiarako Udalak, AMOR MISERICORDIOSO Ikastolak egiten duen gizarte-lanari erreparatuta, besteak beste, hitzarmen honen jardungo du, urtean zehar gauzatuko diren jardueretarako urteko dirulaguntza arautzen baitu.*

II.- *Aplikatzekoa den legeria zehatz-mehatz betez, eta Lankidetz*a Hitzarmenak sinatzeko Toki Erakundeek duten eskumenari jarraiki, bi aldeek Lankidetza Hitzarmen hau formalizatzen dute, eta jarraian adierazitakoak bete beharko dituzte

ESTIPULAZIOAK

LEHENENGOA.- *Hitzarmen honen xedea da Aiarako Udalak AMOR MISERICORDIOSO Ikastolak urtean zehar gauzatzen dituen ekimen eta jarduerak sustatu eta horietan laguntzea, ikasleen garapen pertsonala eta bizi-kalitatea hobetzen dutelako. Honako hauek izango dira hitzarmen honen bidez diruz lagunduko diren ekintzak eta jarduerak:*

- *Altzariak, lanabesak edo tresnak erostea, horiek ikasleen bizitzarako eta/edo jarduerak gauzatzeko lagungarriak badira.*
- *Kultura- edo aisialdi-jarduerak antolatu eta gauzatzea, ikasleen integrazioa eta garapen pertsonala sustatzeko.*



BIGARRENA.- Aiarako Udalak sustatuko duen jardueraren edukia AMOR MISERICORDIOSO Ikastolak gauzatuko dituen aurreko atalean azaldutako jardueren gastuen aurrekontuan zehazten da.

HIRUGARRENA.- Administrazio honek emango duen dirulaguntza jarduera gauzatu ahal izateko, aurretik adierazitako jarduerak gauzatzeko beharrezkoak diren gastuak estaliko ditu.

Dirulaguntza jarduerak gauzatzean gertatutako gastuen arabera kalkulatu da, eta Ikastolak kontzeptu hauetarako jasotako dirulaguntzetan emandako dirua kenduko zaio.

Dirulaguntza honi dagokion udal-dirulaguntza gehienez ere **BI MILA EUROKOA** (2.000,00) izango da urtean.

LAUGARRENA.- Urteko dirulaguntzaren zenbatekoa (gehienez ere 2.000,00 euro) **JUSTIFIKATZEKO**, honako zenbateko honen inguruko dokumentazioa aurkeztuko da:

- Foru Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin egunean egotearen ziurtagiriak, edo Aiarako Udalak aipatutako ziurtagiriak erakunde horiei eskatu ahal izateko dokumentu sinatua.

- Horrez gain, udal-dirulaguntzaz gain jasotako diru-sarrerak adierazi beharko dira (AFAREN dirulaguntzak eta beste batzuk, **KONTRATU HONEK DIRUZ LAGUNTZEN DITUEN MATERIAL ETA JARDUEREI DAGOKIENEZ**) (Bete beharreko inprimakia erantsi da).

- Diruz lagundutako jarduera edo programen deskripzio- eta balioespen-txostena.

- Programaren memoria (egindako jarduera bakoitzaren ebaluazio edo azalpen-fitxa eta hori egin izanaren zinpeko adierazpena edo deskribapena, eta, beharrezkoa balitz dirulaguntza honen kargura erositako altzari, tresna edo lanabesen zerrenda).

- Gastuaren justifikazio-fakturen kopia eta ordainketa-dokumentuak.

Lehenengo atalean adierazitako baldintzak haustean, ez da dirulaguntza emango eta aurretiaz emandako zenbatekoak aztertze prozedura bati ekingo zaio.

Ez balitz laugarren atalean eskatutako justifikazioa aurkeztuko 2021eko urtarrilaren 31rako, ez da dirulaguntza emango eta aurretiaz emandako zenbatekoak aztertze prozedura bati ekingo zaio.

Dirulaguntza hau ez da Udalak ematen dituen gainerako dirulaguntzekin bateragarria izango.

BOSGARRENA.- Diruz lagunduko diren jarduerak gauzatzeko epea salbuespenak salbuespen, diruz lagundutako urtea izango da, hau da, 2020. urtea.



SEIGARRENA.- Dirulaguntza honela ordainduko da: Aiarako Udalak ezarritako gehieneko dirulaguntzaren % 80 ordainduko du hitzarmena amaitzean. Gainerako % 20a hitzarmen honen LAUGARREN atalean adierazitako dokumentazioa aurkeztu ondoren ordainduko du.

Aiarako Udalak edozein momentuan gaiaren inguruko edozein informazio eskatu ahal izango du.

ZAZPIGARRENA.- AMOR MISERICORDIOSO Ikastolak egiten duen publizitate guztian, Aiarako Udalaren lankidetzeta eta babesa jaso beharko da.

ZORTZIGARRENA.- AMOR MISERICORDIOSO Ikastolak hitzarmen honetan jasotako betebeharrak betetzen ez baditu, indarrean dagoen diru-laguntzei buruzko araudian aurreikusitako erantzukizun eta zehapen erregimena aplikatuko da.

Eta adostutakoarekin bat datozela frogatzeko, aldeek lankidetzeta hitzarmen honen hiru aleak sinatu dituzte, zuzenketarik edo urratzerik gabe, dokumentu hau osatzen duten 4 orrialdeetako bakoitzean, eta hitzematzen dute berau beteko dutela dokumentu honen goiburuan agertzen den lekuan eta egunean.

ALKATE-UDALBURUA IDAZKARIA

Sin.- Gentza Alamillo Udaeta Sin.- M^a Del Carmen Rojo Pitillas.

Alkate jaunak eta idazkari andreak elektronikoki sinatutako dokumentua.

AMOR MISERICORDIOSO IKASTOLAKO ZUZENDARIA

Sin.- Elisa Pelaz Baños".

Bigarrena.- Alkate-udalburuari ahalmena ematea aipatutako hitzarmena sinatu dezan.

Hirugarrena.- Erabaki hau Menagaraiko Amor Misericordioso Ikastolari jakinaraztea, dagokion Hitzarmena sinatu dezan.

Arespalditzan.- ALKATEA.- Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

Elektronikoki sinatutako dokumentua".

Gizarte eta Osasuna, Berdintasuna eta Immigrazioa eta Adinekoen Informazio Batzordeak 2020ko urriaren 13an egindako bilkuran, erabaki hau hartzeko onespena eman zuen.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da eta aho batez onetsi du, ohiko bozketan, erabaki-proposamena idatzi den moduan onestea.



11.- EH Bildu udal-taldeak aurkeztutako mozioa, Araba eta Bizkaiko trenbideko garraio-publikoari dagokiona. Jarraian, alkate jaunak Udalbatzari jakinarazi dio EH Bildu udal-taldeak mozio bat aurkeztu ziola Udalbatzari, Bilbo-Urduña C3 linean ematen ari den zerbitzu txarrari dagokionez.

Gaineratu du mozioa aurkeztea udaleko hiru taldek adostu dutela. Mozioaren testuak honako hau dio:

“JUSTIFICACIÓN DE LA MOCIÓN

Esta moción tiene objeto reivindicar y poner en valor el tren de cercanías en Araba y Bizkaia como el servicio público de calidad, acorde a las necesidades de la ciudadanía tanto Araba como de Bizkaia.

La red de cercanías de la que estamos hablando en concreto, que actualmente depende de la administración estatal, es la siguiente línea:

- C3 Bilbao – Orduña.

El transporte público ferroviario cumple una función importante para conectar y articular nuestro territorio. Araba y Bizkaia necesitan un tren de cercanías tanto entre comarcas como para seguir estando en conexión con las capitales.

Sin embargo, la red de cercanías entre Araba y Bizkaia no solo no ha mejorado en los últimos tiempos, sino que continuamente se está perdiendo calidad en el servicio con la incesante supresión de circulaciones debido a diferentes motivos:

- *No hay suficiente plantilla y por lo tanto ante un aumento del absentismo del personal de conducción, se suprimen diariamente un considerable número de trenes, cuya eliminación no se comunica o se realiza con muy poco margen de tiempo.*
- *Tras el confinamiento de la pandemia de la Covid 19, se han suprimido diferentes circulaciones lo que supone que algunos municipios no dispongan del número de trenes adecuado a las necesidades de la ciudadanía*

MOCIÓN

Por todo lo expuesto anteriormente el pleno del ayuntamiento de Ayala adopta el siguiente acuerdo:

Primero.- Solicitar al ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana (MITMA) y RENFE el restablecimiento de los horarios y el número de circulaciones por tren existentes previo a la situación de confinamiento.

Segundo.- Solicitar al ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana (MITMA) y RENFE la garantía de la prestación de una servicio de trenes en el núcleo de cercanías de Araba y Bizkaia, línea C 3, competitivo y acorde a las necesidades de la ciudadanía.

Tercero.-Solicitar por parte de las cuatro corporaciones, LLodio, Aiara, Amurrio y Orduña una reunión urgente con el responsable de la línea en RENFE-ADIF, con el fin de compartir la problemática de la línea, los compromisos adquiridos y la mejora del servicio ya que mientras sea su competencia debe solucionar las necesidades que se presenten.



Cuarto.- Incrementar las inversiones en el mantenimiento de las infraestructuras. Además de realizar las inversiones necesarias para garantizar la seguridad y accesibilidad en aquellas estaciones pendientes: Luiaondo y Amurrio (Orduña)

Quinto.- Solicitar al ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana (MITMA) y a RENFE y a ADIF que incrementen las plantillas a fin de poder ofrecer un servicio de transporte acorde a lo solicitado en los puntos anteriores.

Sexto.- Solicitar al Gobierno español que cumpla después de 40 años, transfiriendo al Gobierno Vasco la competencia de ferrocarriles de cercanías sin más dilación.

Séptimo.- Solicitar a la Diputación Foral de Álava, Diputación Foral de Bizkaia y Gobierno Vasco, que sumen a este acuerdo y realicen cuanto esté en su mano para garantizar el futuro tren de Cercanías en Araba y Bizkaia.

Octavo.- Comunicar el presente acuerdo al ministerio de transportes, movilidad y agenda urbanística así como a RENFE y ADIF

MOZIOA

Mozio honen helburua da Arabako eta Bizkaiko aldiriko-trena kalitatezko zerbitzu publiko gisa aldarrikatzea eta balioestea da, bat egiten Arabako eta Bizkaiko biztanleen beharrekin.

Zehazki hitz egiten ari garen aldiriko sarea, egun estatuko administrazioaren mende dagoena, honako linea hau da:

-C3 Bilbao Urduña

Tren bidezko garraio publikoak funtzio garrantzitsua betetzen du gure lurraldea lotzeko eta artikulatzeko, eta Arabak zein Bizkaiak aldiriko trenbidea behar du eskualdeen artean eta hiriburuekin ondo konektatua egoten jarraitzeko.

Hala ere, Arabako- Bizkaiko aldiriko sarea ez da hobetu azken aldian, eta gainera, zerbitzuaren kalitatea etengabe galtzen ari da zerbitzuak etengabe kendu, hainbat arrazoi direla medio:

- Ez dago langile nahikorik, beraz, gidarien absebtismoa handituz gero, egunero tren kopuru dezente bat ezabatzen da eta hori ez da jakinarazten, edo eginez gero, denbora-tarte oso txikiarekin egiten da.*
- COVID-19rengatik konfinamenduraen ondoren, hainbat zerbitzu kendu dira; horrek esan nahi du udalerrri batzuetan ez dagoela herritarren beharretara egokitutako tren-kopururik.*

MOZIOA

Horiek horrela, Aiarako Udalak erabaki hau hartu du:

Lehenengoa.-Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioari (MITMA) eta RENFERi eskatzea konfinamendu-egoeraren aurretik zeuden ordutegiak eta tren bidezko zirkulazio-kopurua berrezartzeko.



Bigarrena.- Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioari (MITMA) eta RENFERi eskatzea Araba eta Bizkaiko aldiriko tren-nukleoan C 3 linea lehiakorra izateko eta herritarren premiekin bat datorrena.

Hirugarrena.- Lau korporazioek, Laudiok, Aiarak, Amurriok eta Urduñak, linearen RENFE-Adif enpresako arduradunarekin premiazko bilera bat egiteko eskatzea. Hortaz, linearen arazoak, hartutako konpromisoak eta zerbitzuaren hobekuntza partekatu nahi da. Izan ere, eskumena den bitartean aldiro-aldiro diren beharrak berari dagozkio.

Laugarrena.- Azpiegiturak mantentzeko inbertsioak handitzea. Horrez gain, Luiaondo, Amurrio eta Urduña tren-geltokietan segurtasuna eta irisgarritasuna bermatzeko beharrezko inbertsioak egingo dira.

Bosgarrena.- Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioari (MITMA) eta RENFERi eta ADIFI langile-kopurua handitzeko eskatzea, aurreko puntuetan eskatutakoaren araberrako garraio-zerbitzua eskaini ahal izateko.

Seigarrena.- Espainiako Gobernuari eskatzea 40 urte pasatu direlarik bete dezala, eta Eusko Jaurlaritzari transferitzea aldiriko trenbideen eskumena, ahalik eta azkarren.

Zazpigarrena.- Arabako Foru Aldundiari ,Bizkaiko Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzari eskatzea akordio honekin bat egin dezatela eta eskura duten guztia egin dezatela Araban eta Bizkaian etorkizuneko aldiriko trena bermatzeko.

Zortzigarrena.- Erabaki hau garraio, mugikortasun eta hirigintza agendako ministerioari, Renfe eta ADIFI jakinaraztea”

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak adierazi du bihar dutela bilera Bilbon, 12:00etan, RENFERen arduradunekin eta kaltetutako gainerako lau udalerrietako alkateekin, zerbitzua lehen bezala emateko beharra adierazteko.

Karmele Población Martínez (EH-BILDU) zinegotzi andreak esan du RENFERen arduradunekin bilera bat egitean, Balmaseda eta Bilbo lotzen dituen zerbitzuaren funtzionamendu txarraz kehatzeko aprobeztatu dezakegula, zerbitzua ez baita orduan iristen eta azkar joaten baita.

Iratxe Parro Uzquiano (AIARA BATUZ) zinegotzi andreak galdetu du ezin den eskatu Luiaondotik igarotzeko lurpeko pasabideren bat jartzeko.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) jaunak baietz erantzun dio, hainbat gai, irisgarritasun gabezia horien artean, egingo duten bileran aterako ditu.

Iñigo Pinedo Vadillo (EAJ-PNV) zinegotzi jaunak esan du nasen egoera zein zen jakinarazi ziela eta orain desgaitasunen bat duten pertsonak ezin direla trenean sartu.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak azaldu du irisgarritasun arazoa duela bi edo hiru urte aurkeztu zitzaizela, eta konponbideak aurkeztu arren ez zirela gauzatu.



Iratxe Parro Uzquiano (AIARA BATUZ) zinegotzi andreak adierazi du orain Aldundia mugikortasun ikerketa bat egiten ari dela eta horri esker, agian, bizikleta elektrikoen aparkaleku bat jar genezakeela.

Esku-hartze guztiak amaitzean, ohiko bozketan aho batez erabaki dute transkribatutako Mozioa idatzi den moduan onestea.

12.- Alkatetza Dekretuen kontu ematea.- Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaizkio 2020/402 eta 2020/481 Alkatetza Dekretuak, aipatutako bi horiek barne. Horien guztien edukia, laburki, honako hau da:

“ALKATETZA DEKRETUEN ZERRENDIA.-

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/402.- E.A.C.- Dokumentazio gehigarria eskatu zaio Maroñon dagoen etxebizitzaren estalkia birgaitzeko obra-lizentzia izapidetzeko.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/403.- Opellorako Administrazio Batzordea.- Udaleko obra-lizentzia ematea Opellorako Norzagarai auzoko bideak egokitzeko.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/404.- Onestea F/2020/12 zenbakiko fakturen kontabilitate-zerrenda.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/405.- Kreditua egokitzeko 1/2020 espedientea onestea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/406.- Luiaondoko Estartako kaleko 1-3 zenbakietako Etxejabeen Elkartea.- Udaleko obra-lizentzia ematea eraikineko ganbelak konpondu eta teilatu-hegalak eta balkoiak konpontzeko.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/40.- Padura kaleko 7 zenbakiko Etxejabeen Elkartea.- Dokumentazio gehigarria eskatu zaio udaleko obra-lizentzia emateko, Luiaondoko Padura kaleko 7 zenbakiko etxebizitzaren 1. eta 2. solairuen arteko fatxada konpontzeko.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/408.- Administrazio Batzordeen artean banatzea 2020. urterako udal-aurrekontuan parte-hartzea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/409.- F.M.A. Landa-OHZ hainbat lursailetan salbustea onestea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/410.- MV. M. I. Landa-OHZ hainbat lursailetan salbustea onestea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/411.- Onestea Eusko Jaurlaritzari egingo zaion dirulaguntza-eskaera, “Eskola Agenda 2030” programarako.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/412.- MP. A. A. Landa-OHZ hainbat lursailetan salbustea onestea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/413.- JA. H. M. Landa-OHZ hainbat lursailetan salbustea onestea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/414.- Zorroza Gestión SL – Espedienterako sarbide-eskaerarako idatziari erantzuna.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/415.- E.A.G. 2020ko TMIZean hobaria ematea familia ugaria izatea egiaztatzeagatik.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/416.- L.R.R. 2020ko TMIZa salbustea desgaitasun bat izatea egiaztatzeagatik.



ALKATETZA DEKRETUA – 2020/417.- A.A.A. 2020ko TMIZa salbustea desgaitasun bat izatea egiaztatzeagatik.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/418.- A.S.Y.- Aparkatzeko txartela ordeztu zaharkituta egoteagatik.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/419.- Olabazarreko Administrazio Batzordea.- Udaleko obra-lizentzia ematea bankuak berriz margotu eta bernizatu eta bideak garbitzeko.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/420.- Zuhatzako Administrazio Batzordea.- Dokumentazio gehigarria eskatu du Gizarte-zentroan sukaldia instalatzeko udaleko obra-lizentzia emateko.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/421.- Landa ondasun higiezinaren gaineko zergaren errolda onestea, 2020. urtea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/422.- Asfaltados y Const. Morga. Luiaondon egindako obrarekiko kontraesankorra den prezioen 2. ordainketaren egiaztatzea onestea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/423.- Elkarkidetzaren Pentsioak. Likidazio-faktura onestea, 2020ko iraila.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/424. J.O.P. 2020ko TMIZaren ordainagiriaren zati bat itzultzea ibilgailuaren behin betiko bajagatik.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/424. A.O.Z. 2020ko TMIZaren ordainagiriaren zati bat itzultzea ibilgailuaren behin betiko bajagatik.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/424. MV. S.B. 2020ko TMIZaren ordainagiriaren zati bat itzultzea ibilgailuaren behin betiko bajagatik.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/424. S.G.R. 2020ko TMIZaren ordainagiriaren zati bat itzultzea ibilgailuaren behin betiko bajagatik.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/428.- E.A.C.- Dokumentazio gehigarria eskatu zaio Maroñon dagoen etxebizitzaren estalkia birgaitzeko obra-lizentzia izapidetzeko.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/429.- Luiaondoko Administrazio Batzordea.- Udaleko obra-lizentzia ematea Luiaondoko bolatokia konpontzeko.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/430.- Costerako Administrazio Batzordea.- Udaleko obra-lizentzia ematea edateko ura banatzeko sarea berritzeko.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/431.- S.SM.L.- Izorian baserri bat birgaitzeko obrak hasteko baimena ematea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/432.- Luiaondoko Administrazio Batzordea.- Dokumentazio gehigarria eskatu zaio obra-lizentzia izapidetu ahal izateko Luiaondon hondakin-isuriak bateratzeko eta arazteko sistema berria ezartzeko.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/433.- Kexaako Administrazio Batzordea.- Kexaako hilerrian konponketak egiteko udaleko obra-lizentziaren eskaerari uko egitea onestea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/434.- Kexaako Administrazio Batzordea.- Udaleko obra-lizentzia ematea Kexaako hilerriak ekintzak gauzatzeko.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/435.- AFari egindako laguntza-eskaera onestea – Obra Txikiak Gauzatzeko Programa 2021.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/436.- Langileen eta alkatearen nominen hileroko txostena



onesteia, 2020ko iraila.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/437.- Kexaako Administrazio Batzordea.- Kexaako hilerrian kolunbarioak jartzeko obra-lizentziaren eskaerari uko egitea onesteia.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/438.- Alderdi Politikoei ekarpen ekonomikoa, 2020ko iraila.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/439.- Alkatetzaren eskuduntzak eskuordetzeko dekretua, ezkontza zibila ospatzeko urriaren 3an, J.L.P.M eta M.A.A.B. ezkontzeko.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/440.- E.Q.SJ.- Dokumentazio gehigarria eskatu zaio udaleko obra-lizentzia emateko, Soxoko etxebizitza bat teilaberritzeko.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/441.- MC.R.P.- Orduak gozatzeko baimena, lanalditik kanpo euskara ikastarora joateagatik.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/442.- A.R.H.- Murgako Industrialdean monolito bat jartzeko eskatutako obra-lizentzia ukatzea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/443.- Zornotza Gestión SL.- DArekiko 2020/07/30eko 2020/352 berrezartze-errekurtsoa gaitzestea

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/444.- Onesteia Udalbatzako kideen ekarpen ekonomikoa, 2020ko iraila.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/445.- A.A.C.- TMIZaren kuotaren % 100eko hobaria ematea ibilgailu historiko baten titularra izateagatik.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/446. S.U.Z.- 2020ko TMIZaren ordainagiriaren zati bat itzultzea ibilgailuaren behin betiko bajagatik.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/447. MM.V.E- 2020ko TMIZaren ordainagiriaren zati bat itzultzea ibilgailuaren behin betiko bajagatik.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/448.- A.A.A.- 57172-146 zenbakiko aparkatzeko txartela ematea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/449.- Ned Suministro GLP SAU.- Jabari publikoa 2020ko hirugarren hiruhilekoan okupatzeagatik tasa likidatzea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/450. Nortegas Energía Distribución SAU.- Jabari publikoa 2020ko hirugarren hiruhilekoan okupatzeagatik tasa likidatzea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/451.- Menagarai-Beotegi bide jabeduneko Etxejabeen Elkartea.- Dokumentazio gehigarria eskatu zaie obra-lizentzia eman ahal izateko.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/452. AM.U.F.- 2020ko TMIZaren ordainagiriaren zati bat itzultzea ibilgailuaren behin betiko bajagatik.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/453. J.M.Q.- 2020ko TMIZaren ordainagiriaren zati bat itzultzea ibilgailuaren behin betiko bajagatik.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/454.- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia.- 2020ko abuztuko kuota ordaintzea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/455.- M.C.I.E.- 04.423-40 zenbakiko aparkatzeko txartela berritzea onesteia.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/456.- Onesteia kultura- eta kirol-tailer eta -ikastaro artistikoak emateko zerbitzuen kontratazio-espeditentia.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/457.- Onesteia F/2020/13 zenbakiko fakturen kontabilitate-



zerrenda.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/458.- Luiaondoko Administrazio Batzordea.- Hondakinen kudeaketarako fidantza eskatzea, Arzillores errekan harri-lubeta bat eraikitzeko obra-lizentzia emateko.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/459.- Padura kaleko 7 zenbakiko Etxejabeen Elkarte.- Obra-lizentzia ematea 1. eta 2. solairuen arteko fatxada konpontzeko.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/460. Etorki SKoop.- Dokumentazio gehigarria eskatu zaio obra-lizentzia emateko, egur-zerrategiaren instalazio berrirako. I. fasea: Aiarako 4. poligonoko 721. lursaila egokitu eta urbanizatzea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/461.- Luiaondoko Padura kaleko 41 zenbakiko Etxejabeen Elkarte.- Obra-lizentzia ematea beheko solairuko fatxada konpontzeko.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/462.- JA.V.R.- Luiaondoko La Torre kaleko 6 zenbakiko etxebizitza familia bakarra lehenengoz okupatzeko lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/463.- Luiaondoko Administrazio Batzordea.- Hondakinen kudeaketarako fidantza eskatzea, Arzillores errekan (Iturrutxu-Austio bidea) harri-lubeta bat eraikitzeko obra-lizentzia emateko.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/464.- LM.M.G.- Udaleko obra-lizentzia ematea Soxoko berotegi bat handitu biltegi egiteko.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/465.- E.Q.SJ.- Berriz ere dokumentazio gehigarria eskatu zaio udaleko obra-lizentzia emateko, Soxoko etxebizitza bat teilaberritzeko.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/466.- Luiaondoko 43 zenbakiko Padura kaleko Etxejabeen Elkarte.- Obra-lizentzia ematea eraikinaren gune komunetan alikatatua jartzeko.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/467. JA.M.S.- 2020ko TMIZaren ordainagiriaren zati bat itzultzea ibilgailuaren behin betiko bajagatik.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/468.- Zuhatzako Administrazio Batzordea.- Udaleko obra-lizentzia ematea Arespalditzako hilerriko pareta birgaitzeko.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/469.- Telefónica España SAU.- Udaleko obra-lizentzia ukatzea Murgan hainbat zutoin jartzeko.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/470.- Triki-Tixa Eskolako ikastaroak emateko zerbitzuaren kontratazio-espeditzea onestea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/471.- Lantenoko Administrazio Batzordea.- Dokumentazioa eskatu zaio udaleko obra-lizentzia emateko, Lanteroko Ureta auzorako bidea konpontzeko.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/472. J.U.O.- 2020ko TMIZaren ordainagiriaren zati bat itzultzea ibilgailuaren behin betiko bajagatik.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/473. J.A.P.- 2020ko TMIZaren ordainagiriaren zati bat itzultzea ibilgailuaren behin betiko bajagatik.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/474. S.R.O.- 2020ko TMIZaren ordainagiriaren zati bat itzultzea ibilgailuaren behin betiko bajagatik.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/475. JA.B.C.- 2020ko TMIZaren ordainagiriaren zati bat itzultzea ibilgailuaren behin betiko bajagatik.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/476. JH.C.P.- 2020ko TMIZaren ordainagiriaren zati bat itzultzea ibilgailuaren behin betiko bajagatik.



ALKATETZA DEKRETUA – 2020/477. T.M.R.- 2020ko TMIZaren ordainagiriaren zati bat itzultzea ibilgailuaren behin betiko bajagatik.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/478. I.E.M.- 2020ko TMIZaren ordainagiriaren zati bat itzultzea ibilgailuaren behin betiko bajagatik.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/479. MP.U.I.- 2020ko TMIZaren ordainagiriaren zati bat itzultzea ibilgailuaren behin betiko bajagatik.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/480.- Etxaurren Ikastola.- Talde psikopedagogikoari eta bi urtekoen gelaren laguntzaileari nominak ordaintzea, 2020ko iraila.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/481.- 2020ko deialdiko kiroldgien kuotak finantzatzeko dirulaguntzen deialdia onestea.

Marian Mendiguren Mendibil (EH-BILDU) zinegotzi andreak 460 zenbakiko dekretuari (“*Etorki SKoop.- Dokumentazio gehigarria eskatu zaio obra-lizentzia emateko, egur-zerrategiaren instalazio berrirako. I. fasea: Aiarako 4. poligonoko 721. lursaila egokitu eta urbanizatzea.*”) dagokionez, galdetu du non dagoen.

Alkate jaunak adierazi du Murgako zelai bat dela, ibaiaz beste aldeko errotonda dagoen eremuan.

Marian Mendiguren Mendibil (EH-BILDU) 469. dekretuari (“*Telefónica España SAU.- Udaleko obra-lizentzia ukatzea Murgan hainbat zutoin jartzeko*”) dagokionez, galdetu du zergatik ukatu den.

Alkate jaunak uste du Arau Subsidiarioek eskatzen dutela hariteriak lurperatzea.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

13°.- Eguneko aztergaien zerrendan ez dauden gaiak. Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) udalburu jaunak Udalbatzari jakinarazi dio osoko bilkura honen eguneko gai-zerrendan sartuko duela, premiazkoa delako, akats batengatik osoko bilkuratik kanpo geratu den gai bat. Gai hori landu egin zen 2020ko urriaren 13ko Kontuen eta Ogasun, Funtzio Publiko eta Barne Erregimeneko Informazio Batzorde Iraunkor Berezian eta 4/2020 zenbakiko espedientea (Aurrekontu-egonkortasuna ez betetzeagatik kreditu gehigarria eta idazkari kontu-hartzailearen txostena) hasieran onesteari buruzkoa da.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da eta aho batez onesti du aipatutako gaia osoko bilkura honen eguneko gai-zerrendan sartzea, eta, ondorioz, hori eztabaidatu eta bozkatzea.

13.1 Hasiera batean onestea 4/2020 zenbakiko espedientea, aurrekontu-egonkortasuna ez betetzeagatik kreditu gehigarria eta idazkari kontu-hartzailearen txostena.

Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio zein den 2020ko urriaren 7ko alkatezaren proposamena, diruzaintzako gerakin likidoarekin finantzatzeko kreditu gehigarriko 4 zenbakiko espedienteari buruzkoa. Horrek honako hau dio:

“UDALBATZAREN ERABAKI-PROPOSAMENA



IKUSI DA.- Diruzaintzako soberakinaren zati bat erabili behar da, Gastu Orokorrak atalekoa eta 2019ko likidazioak emandakoa. Xedea da gastuen partida bat sortzea, ezin delako 2020ko aurrekontua egin arte itxaron.

IKUSI DA.- Kontu-hartzaileak eginiko txostena, aurrekontu-egonkortasuna ez betetzeari buruzkoa, abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauan (17/2014 Foru Arauak Aldatzen duena) jasotakoari jarraituz (Arabako tokiko erakundeen aurrekontu egonkortasunari eta finantza iraunkortasunari buruzkoa). Txosten hori Udalbatzari erakutsi zaio kreditu aldaketa honekin batera.

AINTZAT HARTU DA.- Honako hauetan xedatutakoa: Arabako Lurralde Historikoko tokiko erakundeen aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Araua, Sektore publikoko kontratuei buruzko Legearen testu bateratua onesten duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua eta Tokiko araubidearen oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea.

Azaldutako guztiagatik, proposatu da Aiarako Udaleko Udalbatzak honako **ERABAKI** hau hartzea:

Lehenengoa.- Kreditu gehigarriak onestea jarraian zehaztutako aurrekontuko erabileretan:

PARTIDA	IZENA	ZENBATEKOA (€)
333.601.005	LUIAONDOKO "ERABILERA ASKOTARAKO ESPAZIOA" PROIEKTUA IDAZTEA (PATXITA ETXEA)	20.328,00 €
323.601.006	IKASTOLAKO BEROKUNTZA-PROIEKTUAREN AURREKONTUA EGUNERATZEA	400,00 €
920.623.010	MAKINAK EROSTEA	1.389,04 €
166.226.020	ISURIEN KONTROLERAKO KANONA. MURGA INDUSTRIALDEA.	939,74 €
920.227.000	UDAL-INSTALAZIOAK GARBITZEA	7.885,58 €
151.227.077	UHOLDE-ARRISKUAREN AZTERKETA - HAPO	81.100,00 €
ZENBATEKOA OSOTARA:		112.042,36 €

Zenbateko hori ondoren zerrendatzen diren baliabideekin finantzatuko da; beraz, espedientea orekatuta dago eta ez da defizitik sortzen:

A. Erabiliko den diruzaintzaren gerakina edo hazi beharreko diru-sarreraren partidak:

<u>Diru-sarreraren partida</u>	<u>Izena</u>	<u>Zenbatekoa (€)</u>
87001	DIRUZAINZAREN SOBERAKINA GASTU	112.042,36 €



	<i>OROKORRETARAKO</i>	
	<i>GUZTIRA</i>	112.042,36 €

Onetsitako kreditu gehigarrien zenbateko osoa finantzatzeko erabiltzen diren diru-sarrera guztien parekoa da.

Bigarrena.- *Erabaki hau ALHAOn argitaratzea eta espedientea publiko egitea 15 egun baldioduneko epean, interesdunek aztertu eta egoki deritzoten erreklamazio guztiak aurkeztu ahal izateko.*

Hirugarrena.- *Ebazpen hau behin betikotzat hartzea, erreklamaziorik egon ezean. Erreklamaziorik egongo balitz, erabaki berri bat hartuko litzateke, horiek onetsita edota ukatuta.*

Arespalditzan..- ALKATEA.- Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

Elektronikoki sinatutako dokumentua”.

Era berean, Kontu Hartzailetzaren txostena, 2020ko urriaren 7koa, aurrekontu-egonkortasuna ez betetzeari dagokiona. Horrek honako hau dio:

“KONTU HARTZAIETZA TXOSTENA

GAIA: Gastu orokorretarako diruzaintzaren gerakinean kargurako aurrekontu-aldaketa.

Aiarako Udaleko Kontu Hartzailetzako karguari dagozkion eginkizunak oinarri hartuta, eta abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauak, Arabako toki-erakundeen aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzkoak (17/2014 Foru Arauak aldatua), zeinen bidez gerakinaren kargurako kreditu-aldaketa bat onetsi ahal izateko Udaltzari Kontu Hartzailetzaren txosten bat aurkeztu beharko zaion, egonkortasunaren helburua bete ez dela jasota utziz, eta Diruzaintzako Gerakinaren erabileran egindako aldaketak kontuan hartuta, honako txosten hau egin da (bi txosten dauzka):

- I. eranskina: Gerakina erabiltzeko proposamena, hainbat kreditu gaitzeko.
- II. eranskina: kontu-hartzailetza txostena, Diruzaintzako Gerakinarekin gastuak finantzatzearen bidez egonkortasuna betetzeko.

I. ERANSKINA: GERAKINA ERABILTZEKO PROPOSAMENA

DIRUZAINZAREN GERAKINA ESPEDIENTE HAU BAINO LEHENAGO ERABILI GABEKO 2019ko LIKIDAZIOAREN GASTU OROKORRETARAKO: **255.577,91 €**. (gainerakoa honako hauetan erabili da: kreditu gehigarriko 1/2020 zenbakiko espedientean (40.000,00 €), kredituaren gerakina sartzeko 1/2020 zenbakiko espedientean (8.920,60), kredituaren gerakina sartzeko 4/2020 zenbakiko espedientean (6.250,86 €), kreditu gehigarriko 2/2020 zenbakiko espedientean (262.877,06 €) eta kreditu gehigarriko 3/2020 zenbakiko espedientean (16.758,50 €):

ERABILTZEKO PROPOSAMENA: 112.042,36 €.



LUIAONDOKO “ERABILERA ASKOTARAKO ESPAZIOA” PROIEKTUA IDAZTEA (PATXITA ETXEA):	20.328,00 €
IKASTOLAKO BEROKUNTZA-PROIEKTUAREN AURREKONTUA EGUNERATZEA:	400,00 €
MAKINAK EROSTEA:	1.389,04 €
ISURIEN KONTROLERAKO KANONA. MURGA INDUSTRIALDEA:	939,74 €
UDAL-INSTALAZIOAK GARBITZEA:	7.885,58 €
UHOLDE-ARRISKUAREN AZTERKETA – HAPO:	81.100 €
ZENBATEKOA OSOTARA:	112.042,36 €.

II. ERANSKINA: IDAZKARI KONTU-HARTZAILEAREN TXOSTENA, EGONKORTASUNA EZ BETETZEAREN ONDORIOETARAKO

I. TXOSTENAREN OINARRIAK

}0{>Abenduaren 13ko Arabako Toki Erakundearen Aurrekontu Egonkortasuna eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 38/2013 Foru Arauaren (17/2014 Fan idatzitako moduan) 7.1 artikulua arabera, aurrekontu egonkortasunaren zein zor publikoaren helburua edo gastu arauarena bete ezean, ekonomia eta finantza plana formulatu beharko du horiek bete ez dituen administrazioak, aribideko urtean edo hurrengoan helburuak eta gastu araua betetzea ahalbidetuko duena.0}

Horrez gain, aipatutako Foru Arau bereko 7.3 artikulua ezartzen du aurrekontu egonkortasunaren helburua ez betetzea diruzaintzako gerakinen bidez finantzatutako gastuen ondorio bada, ekonomia eta finantza planaren ordezkari kontu hartze zereginak burutzen dituen organoaren txostena aurkeztu beharko zaio dena delako udalbatzari horren berri emateko, bai eta toki korporazioaren finantza iraunkortasunaren analisia eta ebaluazioa ere, gutxienez honakoak jasoko dituen:

- a) Erakundearen zein haren mendeko erakundearen aurrekontu egonkortasunaren helburuak.
- b) Diru sarreraren eta gastuen partida nagusien proiektzioa, joera bilakaera aintzat harturik, hau da, aldaketa onartzen ez duten politikak, adibidez, dagokion aldirako aurreikusitako neurrien inpaktua.
- c) Diru sarreraren eta gastuen proiektzioaren oinarri izango diren suposizio nagusiak.
- d) Diruzaintzako gerakinak agortzeko momentuan dagoen aurrekontu eta finantza egoera.
- e) Hala badagokio, inbertsioaren funtzionamenduak gastu arruntean izango duen eragina.



Txostena kreditu aldaketaren espedientearen zati izango da.

Osoko bilkurako bileraren akta, kontu-hartzailletza organoaren txostenarekin eta euskarri gisa balio duen gainerako dokumentazioarekin batera, Arabako Foru Aldundiko Lehendakaritza Sailari igorriko zaio, eta hark, 30 eguneko epean, neurri osagarriak hartzeko beharrezkoa den informazio osagarria eskatu ahal izango du. Horien artean aurki daitezke, besteak beste, ekonomia- eta finantza-plana egiteko eskatzea, toki-erakundearen finantza-iraunkortasuna bermatze aldera.

Epe hori igaro bada, baina Arabako Foru Aldundiak berariaz ebazpenik eman ez badu, espedientea izapidetzen jarraitu ahal izango da.

ARLO SUBJEKTIBOA:

Txosten honek aurrekontu-aldaketaren finantzaketak sortutako ezegonkortasun-egoera aztertu nahi du; txosten hau horren espedientearen barruan dago, eta aldaketa Aiarako Udalaren Diruzaintzako Gerakina erabiltzearen bidez egin zen.

HELBURUAK:

Diruzaintzaren Gerakinaren bidez proposatutako aurrekontu-aldaketaren finantzaketak egonkortasun printzipioa hausten du, baina hauste horrek ez du egitura-izaerarik, egoeraren araberako egitura du.

Horretarako, aurrekontuaren magnitudeak aztertu behar dira, txosten honen helburua honako helburu hauek egiaztatzea delarik:

- Aurrezki garbi positiboa
- Diruzaintzako Gerakin positiboa
- Ekitaldi bakoitzean ezarritako mugak baino txikiagoa den finkatutako zorraren maila
- Superabitarekin edo finantzaketa-gaitasunarekin finkatutako aurrekontu-egonkortasuna (KSE baldintzetan)
- Gastu-araua betetzea

Abenduaren 13ko Arabako Toki Erakundearen Aurrekontu Egonkortasuna eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 38/2013 Foru Arauaren (17/2014 FAn idatzitako moduan) 7. artikuluko 3. atalaren arabera, txosten hau honela egituratuko da:

1.- Egungo egoeraren diagnosis: erakundeak **aurrekontu-egonkortasuneko** helburuak betetzea edo ez-betetzea aztertuko da.

2.- **Gastu eta diru-sarreren egoerak adieraztea**

3.- Inbertsioaren funtzionamenduak eragingo duen **talka gastu arruntarengan.**

II. EGUNGO EGOERAREN FINANTZA- ETA EKONOMIA-DIAGNOSIA: AURREKONTU-EGONKORTASUNEKO HELBURUAK

Onetsitako azken likidatzean jasotako datuak 2019ko ekitaldiari dagozkionak dira, eta honako datu hauek azpimarratu daitezke:

MAGNITUDEA	ZENBATEK	BETETZEA/EZ BETETZEA
-------------------	-----------------	-----------------------------



	OA	
Doitutako aurrezki garbia	361.604,53 €	POSITIBOA
Diruzaintzaren soberakina gastu orokorretarako	590.384,93 €	POSITIBOA
Aurrekontuaren emaitza	272.839,66 €	POSITIBOA
Zorpetze maila	0	
Aurrekontu-egonkortasuna	305.675,20 €	BETETZE SUPERABITA
Gastu-araua	20.388,08 €	% 4ko EZ BETETZEA

Abuztuko gastu-araua ez betetzeari dagokionez, 2020ko maiatzaren 21eko Udalbatzaren osoko bilkuran jakinarazi zen horren inguruko kontu-hartzaitzaren txosten bat egin zela eta honako hau zioela:

“...8.- GASTU-ARAUA BETE EZ DELA AZTERTZEKO TXOSTENA.

Ekainaren 18ko 17/2014 Foru Arauak berridatzitako Toki Erakundearen Aurrekontu Egonkortasuna eta Finantza Iraunkortasunari buruz 38/2013 Foru Arauaren 7. artikuluko 4. atalean gastu araua betetzen ez duten erakundeek, planaren ordean, Kontuhartzaitzak sinatutako komunikazioa bidali ahalko diote udalbatzari, eta hartan, erakundearen finantza iraunkortasuna aztertu, ebaluatu eta egiaztatuko da. Horretarako, ordea, erakundeek baldintza hauek ere bete behar dituzte:

- Diruzaintzako gerakinak eta aurrezki garbi positiboa erabiliz, ez-betetzea gertatu den ekitaldiko aurrekontua likidatu izana edo, hala badagokio, likidatzeko aurreikuspena izatea.
- Hurrengo ekitaldirako ezarritako defizitaren eta zor publikoaren helburuak betetzea.


Txosten honen edukiaren arabera eta 2019 ekitaldirako udal honen likidatzea osatzen duten gainerako dokumentuen arabera, defizit eta zor publikoko helburu guztiak betetzen dira, eta Diruzaintzaren Gerakina eta aurrezki garbi positiboa lortzen da.

Gastu-araua hautsi egin da gastuak onetsi egin direlako, gastu arruntetarako zein Udalaren berezko baliabideekin inbertsio-gastuetarako. Edonola ere, Udalak bere berezko baliabideekin aipatutako hazkundera bere gain hartu arren, aurrezki garbia positiboa da eta horren zenbatekoa 361.604,53 euro da. Ondorioz, horrekin bermatu egiten da erakunde honen finantza-egonkortasuna, txosten honetako datuetan adierazten den moduan.”

III. GASTUEN ETA DIRU-SARREREN EGOERA.

Epe honetarako Finantza Plan Ekonomikoan zenbatekoak erakustea ahalbidetuko diguten aldagaiak eta neurriak zehazteko, honako EGOERA posible hau ezarri da:

- Krisialdi gogorrean gaude Covid-19 pandemiagatik; izan ere, horrek 2020rako hainbat tokiko diru-sarrera murriztu ditu, batez ere TEFFFean lortutakoei dagokienez. Bestalde, udal-obretarako dirulaguntzak jaso ditugu, LEADER 2019 programari esker; ondorioz, murrizketen eragina lausotu du. Era berean, beste dirulaguntza-eskaera bat izapidetuko da, aldaketa-espediten honen gastua estaltzeari dagokion dirulaguntza gisa.
- Gastuei dagokienez, arlo honetan murrizketen mantentzearekin hasi behar dugu. Gainera, gastuetan zuhurtzia-irizpidearekin jarraituko dugu, langileen gastuei zein beste gastu batzuei dagokienez, adibidez, estatuko aurrekontu orokorren legetatik sortutakoak edo



aurrekontu-egonkortasunerako helburuak betetzean sortutako murrizketetatik sortutakoak (Gastu-araua, Gastu-muga, Finantza-egonkortasuna eta jasangarritasuna).

MAGNITUDE NAGUSIEN GARAPENA.

Ekitaldietan adierazitako aztertutako magnitudeen garapena honako hau da:

HELBURUAK	2.018	2.019
Aurrekontu-egonkortasuna	302.088,60	305.675,20
Diru-sarreraren % egonkortasuna Ez finantzazkoak	12,64 %	12,75 %
Gastu-araua	-122.672,80	20.388,08
Zorrak	0	0
Doitutako aurrezki garbia	553.209,91	361.604,53
Diru-sarrera ohietako aurrezki garbiaren %	24,90 %	15,56 %
DIRUZAINZAKO SOBERAKINA	588.263,66	590.384,93

IV. DIRUZAINTZAREN GERAKINA AGORTZEKO MOMENTUAN AURREKONTUEN ETA FINANTZEN EGOERA.

III-C.1 DIRUZAINZAKO GERAKINA:

Diruzaintzako gerakinak erakundeak osotara bildutako epe motzeko likidatzea islatzen du, epe zehatz batean, eta hori etorkizunean gastu bat finantzatzeko eskuragarri dago.

Doitutako diruzaintzako gerakina gastu orokorretarako

Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina aurrekontua aplikatzen duten hartzekodunen datuen arabera doitzen da, baita ordaintzeke dauden diru-sarreraren itzulerekin ere. Horrek, magnitude honetako egoeraren irudi errealagoa ematen digu. Magnitude honek erakundearen epe motzean dugun likidatze errealaren informazioa ematen digu.

III-c.2 AURREZKI GARBIA.

Aurrezki garbiak Udalak zorpetzeko duen gaitasuna adierazten digu. Aurrezki garbia negatiboa bada, erakundeak ez du inongo gaitasunik epe luzerako mailegu berririk hartu ahal izango. Aurrezki garbia positiboa bada, jakinarazten digu epe luzerako mailegu berriak hartzeko gaitasuna dugula. Gainera, zenbatekoa eta ditugun baldintzak ere zehaztu daitezke. Edonola ere, magnitude honek erakundearen zorpetze-gaitasunaren informazio fidelagoa eman dezan, Foru Arauan ezarritakoaren arabera kalkulaturako zenbatekoa ezohikoak diren eta errepikatzen ez diren diru-sarreraren zenbatekoa ondorioztatzearen bidez egin beharko litzateke.

III-C.2 FINANTZA-ERAKUNDEEKIKO ZORRA.

Zor biziak erakusten du erakundearen finantza-kaudimena zein den. Kaudimenaren inguruko arazoak gehiegizko zorpetzearen ondorio izan daitezke, eta, horren ondorioz, finantza-karga handitu egiten da, gainerako gastu arruntarekin batera. Horregatik, ezinezkoa da erakundearen diru-sarrera arruntek irenstea, aurrezki garbi negatiboa sortzen baitute.

III-C.4 AURREKONTU-EGONKORTASUNA.



Aurrekontu-egonkortasunak erakundearen finantza-gaitasunaren/beharraren berri ematen digu. Horrek, zeharka, esan nahi du mugatu egiten dela zorpetzea urtero amortizatzen den kopuruaren gaintik handitzea (SEC 95 terminoetan kalkulatua). Entitateak finantzaketa beharra badu (gastu ez-finantzarioak sarrera ez-finantzarioak baino handiagoak dira), horrek esan nahi du erakundeak kanpoko finantzaketa (zorpetzea) behar duela bere gastuei aurre egiteko.0}

Erakundeak finantza-gaitasuna badu (gastu ez-finantzarioak sarrera ez-finantzarioak baino txikiagoak dira), hori bera erakundearen bere zorpetzea gainditzeko duen zenbatekoari gehituko zaio.

III-C.5 GASTU ARAUA.

Gastu-araua zerga-arauek bat da, eta horren bidez, gastu konputagarria mugatu nahi da. Beraz, gastu hori ez da ekonomia-ekitaldi batetik bestera aurrekontu-ekitaldi bakoitzerako onetsitako ehunekoa baino gehiago handituko. Hori eginda, aurrezki publiko handiagoa lortu nahi dugu, diru-bilketa handitzeko neurri osagarriekin batera ez doan gastuaren hazkundera muga ezartzearen bidez. Magnitude hori ekitaldi honetarako ezarri da 2019rako Aurrekontuaren Likidatzearekin.

III-D. MAGNITUDEEN GARAPENAREN INGURUKO ONDORIOAK.

Gastu eta diru-sarreraren egoeren kapituluaren landutako datuen arabera, aintzat hartu da Diruzaintzako Gerakinarekin finantzatutako aurrekontu-aldaketaren finantzaketa **ez dela erakunde honentzako egiturazko desorekaren arrazoi izango; egoeraren arabera izango da eta xedea urte bateko epean beteko dira berriz, Finantzaketa Plan Ekonomiko bat egin behar gabe.**

V. INBERTSIOAK FUNTZIONATZEA ERAGINGO DUEN TALKA OHIKO GASTUAREKIKO

Landutako datuen artean, aintzat hartu da aurrezki garbi positiboa egongo dela. Ondorioz, etorkizunean aldaketa honek finantzatutako duen gastuaren (edo inbertsioaren) ondorioz sor daitekeen ohiko gastua erakunde honetan egondako ohiko diru-sarrerak estali ahal izango dute. Era berean, zorpetze-ratioa aurrekontu-ekitaldi bakoitzerako ezarritako xedearen azpian ezarri behar da (ez dago zorpetzerik). Beraz, bi datuak batzean, aurreikusitako daitezke ez dela horren **etorkizuneko finantza-egonkortasuna arriskuan jarriko.**

Horrez gain, aintzat hartu behar da proposatutako aldaketek berez ez dutela etorkizuneko ekitaldien ohiko gastuaren hazkunde handirik sortuko.

Txosten hau kreditu aldaketaren espedientearen barnean egongo da.

Osoko bilkurako akta, kontu-hartzailetza organoaren txostenarekin eta euskarri gisa balio duen gainerako dokumentazioarekin batera, Arabako Foru Aldundiko Tokiko Erakundeaz arduratzen den Sailari igorriko zaio, eta hark, 30 eguneko epean, neurri osagarriak hartzeko beharrezkoa den informazio osagarria eskatu ahal izango du. Horien artean aurki daitezke, besteak beste, ekonomia- eta finantza-plana egiteko eskatzea, toki-erakundearen finantza-iraunkortasuna bermatze aldera.

Arespalditzan.-

IDAZKARI KONTU-HARTZAILEA.- Sin.- Carmen Rojo Pitillas.

Elektronikoki sinatutako dokumentua”.



Itxaso Gorbeña Allende batzordeko buruak kreditu gehigarriaren espediente honen izapidetzearen bide estaliko diren gastuen laburpen bat egin du.

Esku-hartzeak amaitzean, aho batez, ohiko bozketan onetsi da idatzitako moduan erabaki-proposamena onestea eta kontu-hartzailearen txostenaren jakinaren gainean geratzea. Txostena transkribaturik dago eta 2020ko urriaren 7ko aurrekontu-egonkortasuna hausteari buruzkoa zen.

14.- Eskaerak eta galderak

Iratxe Parro Uzquiano (AIARA BATUZ) zinegotzi andreak bi gauza eskatu ditu:

- Data bat ezarri dadila HAPOari egindako alegazioak aztertzeko, egiteke dagoen bilera bat dagoelako eta ezarri behar dugulako.
- Gorobelego ordenantzan ekarpenak egiteko behin betiko epea ezarri dadila.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak lehenengoari dagokionez erantzun du hurrengo Hirigintza Batzordean data ezarriko dela eta dena ondo badoa, urtea amaitu baino lehen alegazioei erantzun ahal izatea, baina barneko lanari dagokionez soilik. Izan ere, Udalbatzak erabakia hartu arte ezin zaie ebazpena interesdunei jakinarazi.

Gorobelen ordenantzari dagokionez, esan du Kofradia bat deitu nahi dutela egin nahi diren obrak onesteko eta bilera horretatik aterako da ekarpenak egiteko epea.

Iratxe Parro Uzquiano (AIARA BATUZ) zinegotzi andreak esan du orain egin behar dugula, maiatzean oraindik ez dugulako ordenantzarik izango.

Iratxe Parro Uzquiano (AIARA BATUZ) zinegotzi andreak proposatu du Administrazio Batzordeekin bilera egitean landutakoa modu batean edo bestean jasotzea. Esan du datu batzuk urriaren 30erako eskatu zituela eta banda zabalaren inguruko informazioa emango ziotela, baina hori ez da gertatu.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun dio Aldundiaren informazioa ematean emango zaiola.

Iratxe Parro Uzquiano (AIARA BATUZ) zinegotzi andreak esan du Administrazio Batzordeek iritsi ez ziren inprimaki batzuk jaso behar zituztela, eta akta baten bidez edota beste modu baten bidez hainbat gairen inguruko informazioa iritsi behar zitzaiela, adibidez, osasun-plana. Hobetzea eta aurrera egitea da gakoa.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak adierazi du bideren bat aurkitu daitekeela.

Karmele Población Martínez (EH-BILDU) zinegotzi andreak honako esku-hartze hauek egin ditu:

- Euskararen inguruko hausnarketa bat egin du eta adierazi du ez duela inoren aurka joan nahi, Udalak euskararekiko duen jarreraren errealitatea da. Euskarak Udalean duen presentzia ez da izan beharko lukeena. Osoko bilkuran euskararen erabilera bermatu egien da itzulpengintza zerbitzuari esker, baina Batzordeak adibidez “nahieran” itzultzen dira, eta horrek interpretazio-akatsak sortzen ditu. Gaineratu du dokumentuak gaztelaniaz daudela eta, batzuetan, Euskara Batzordean bertan, eguneko gai-zerrenda gaztelaniaz dago. Gaztelaniatik euskarara itzultzen duen itzultzaile neuronal oso erabilgarria dago. Horrez gain, esan du Udaleko bederatzi langileen artean zazpik dakitela euskara, baina beti entzuten da gaztelania; jende gehiena ez dago hasieratik euskara hitz egiteko prest. Horregatik, jendeak hitz egin dezan, konfiantza eman behar diogu.



Esan du Udalak euskararen aldeko ekimenetan hartzen duela parte, baina ez da horien buru eta euskarak ez badu aurrera egiten, atzera egiten du.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun dio hori EH-BILDUREN hausnarketa bat dela, baina haiek ez dutela hori uste puntu askotan, batzuetan ados egon arren. Horrez gain, hausnarketa gisa, ez dute egia edo gezurra denik esaten, baina haiek ere beste hausnarketa batzuk egin zitzaizkieten. Edonola ere, dena kontuan hartuko du.

Karmele Población Martínez (EH-BILDU) zinegotzi andreak azpimarratu du ez duela ezer inoren aurka esan.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) zinegotzi andreak esan du ez dutela zertan talde guztiek ados egon.

Karmele Población Martínez (EH-BILDU) zinegotzi andreak esan du euskarak ikaragarri sufritzen duela eta euskara-ikastaroak egiteko kanpaina bat egin behar dela. Izan ere, adibidez aurten euskara-ikastaroa egiteko aukerari buruzko informazioa oso eskasa izan zen.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak adierazi du errealitatea dela udalerriko bi pertsona soilik apuntatu zirela ikastarora. Gainera, eduki berezia izango zuten euskara klaseetarako talde bat osatzeko saiakera egon zen eta hori webgunean, aldizkarian eta Radio Llodion atera zela, baina erantzuna egondakoa izan zen. Amaitzeko, esan du horrek ez duela lan egiten jarraitzea eragozten, baina errealitatea duguna da.

Karmele Población Martínez (EH-BILDU) zinegotzi andreak esan du aipatutako kanpaina ikasturtearen erdialdean egin zela, eta hori ez da aukera ona.

- Karmele Población Martínez (EH-BILDU) zinegotzi andreak, banda zabalari dagokionez, proposatu du euskarazko idatzi bat irakurtzea. Horrek honako hau dio:

“Banda zabala

EH Bilduk 2019ko uztailean hasi zen galdetzen banda zabalaren hedapenaren inguruan Aiara udalerrian. Jakin nahi genuen nola, nondik eta noizko egingo ziren lanak, izan ere oso informazio eskasa zegoen horri buruz.

Handik aurrera, ia udalbatza guztietan egin dugu galdera bera eta erantzunak hauek izan dira:

- *Interneteko orri baten helbidea eman, zabaltzeko aukerarik ematen ez zuena.*
- *Orri bat Aiarako herrien egoera azalduta, banda zabalari dagokiona, ulertezina eta akatsez betea.*
- *Eskatu dugu Eusko Jaurlaritzaren zein Foru Aldundiaren banda zabalean arduratzen diren teknikoek agerpena, banda zabalaren egoera azaltzeko. Erantzunik ez, udalaren aldetik.*

Bitartean, konfinamendua etorri eta gure gabeziak agerian geratu dira. Toki ugarian banda zabalik ez dago, lan telematikoak egiteko arazo ugari daude hainbat etxetan, unibertsitateko eskolak modu ez presentzialean jarraitzeko ezintasuna, bilerak on line egiteko traba handiak...

Gauden egoeran gaudela itxiera berrien aurrean egon gaitzkeela ikusita, udalaren inplikazio eta lana eskatzen dugu, orain arte izan duen jarrera alde batera utzita, une honetan bere biziko garrantzia baitu behar bezalako konexioa izatea udalerriko biztanle guztientzat.



Banda ancha

EH Bildu comenzó a preguntar en julio de 2019 sobre la expansión de la banda ancha en el municipio de Ayala. Queríamos saber cómo, dónde y cuándo se haría el trabajo, porque había muy poca información al respecto.

Desde entonces, hemos hecho la misma pregunta en casi todos los plenos y las respuestas del PNV han sido:

- Darnos la dirección de una página de Internet que no se podía abrir.*
- Hacernos llegar una página en la que se explicaba la situación de los pueblos de Ayala referente a la banda ancha, incomprensible y llena de errores.*
- Hemos solicitado más de una vez la comparecencia de los técnicos responsables de banda ancha del Gobierno Vasco y de la Diputación para explicar el estado de la banda ancha. No ha habido respuesta a la petición.*

Mientras tanto, ha llegado el confinamiento y se han revelado nuestras deficiencias. No hay banda ancha en numerosos lugares, hay muchos problemas con el trabajo telemático en muchos hogares, hay imposibilidad de continuar las clases on line para quienes estudian en la universidad, problemas para realizar reuniones en línea...

Viendo que estamos ante nuevos cierres a causa de la Covid 19, exigimos la implicación y el trabajo del Ayuntamiento, dejando a un lado la actitud de ninguneo del problema que han mantenido hasta el momento, ya que es vital en la situación de aislamiento actual que todas las personas que vivimos en el municipio tengamos una conexión adecuada “

- *Karmele Población Martínez (EH-BILDU) zinegotzi andreak zerbait argitzeko eskatu du. Izan ere, adierazi du online kontu bat irekitzen saiatu dela eta ezin izan duela; helbidea gaizki zegoela esaten zioten eta ez zen posta-kodea onartzen. Horregatik galdetzen du Udala helbideak ongi gordetzen egongo den.*
Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun dio Udalak soilik kale-izendegia egiteko proposamen bat egiten diela Administrazio Batzordeei. Horiek dira, beren Kontzejuetan onesten dutena eta hori da Aldundiari bidaltzen zaiona.
Iratxe Parro Uzquiano (AIARA BATUZ) zinegotzi andreak hori urtero egiten den galdetu du.
Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun dio Administrazio Batzorde batek berrikustea eskatzean, laguntza teknikoa kontratatzen dela eta auzo bakoitzerako egiten dela; ondoren, planoak Kontzejuari bidaltzen zaiola onetsi dezan eta azkenik Eusko Jaurlaritzari, Correosi, suhiltzaileei eta abarri bidaltzen zaiela.
Karmele Población Martínez (EH-BILDU) zinegotzi andreak esan du bera ez dela hori gertatu zaion pertsona bakarra.
Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak adierazi du Arespalditzan ere arazoak zeudela kale guztiek izen berdina zutelako. Esan du Udalak Kontzejuei onetsitakoa bidaltzen diela, besterik gabe.
Iratxe Parro Uzquiano (AIARA BATUZ) zinegotzi andreak esan du berari bankuan gertatu zaiola.
Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak adierazi du posta-kodeak Correosen mende daudela.



Karmele Población Martínez (EH-BILDU) zinegotzi andreak galdetu du ezin duten haiekin hitz egin ongi dagoen ikusteko.

Alkate jaunak erantzun dio bakoitzaren webgunean daudela, hori dela informazio ofiziala.

Koldo Mendioroz Goldaraz (EH-BILDU) zinegotzi jaunak honako esku-hartze hauek egin ditu:

- Proposatu du osoko bilkura zuzenean ematea. Jendea hori eskatzen ari da eta Covid-19ak sortutako pandemiarekiko neurri bat hartzeaz gain, herritarrengana hurbiltzeko modu bat izango litzateke.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun du iaz aktaren audioa jartzearen inguruko neurriren bat hartu zela. Edonola ere, adierazi du aurten osasun-egoera larriarengatik, irtenbideren bat aurkitu behar izan zela eta osoko bilkura Eusko Jaurlaritzaren kontratazio-plataformaren bidez eman zela. Era berean, aktaren audioa jartzeko, mikrofono-sistema berria erostea beharrezkoa da, baita online ematea ahalbidetzen duen software bat ere. Ea urtea amaitu baino lehen egin daitekeen.

- Koldo Mendioroz Goldaraz (EH-BILDU) zinegotzi jaunak adierazi du Iratxe Parro zinegotzi andreak esan bezala eta berak osoko bilkura guztietan dioen bezala, Gorobelen kudeaketa-plana martxan jarri behar dela, datorren urtean indarrean egon dadin. Alkate jaunak adierazi du Iratxe Parro zinegotzi andreak larreen aprobetxamendurako ordenantzari egiten diola erreferentzia. Koldo Mendioroz Goldaraz (EH-BILDU) zinegotzi jaunak adierazi du hori jasotzea beharrezkoa dela lan egin ahal izateko.

- Koldo Mendioroz Goldaraz (EH-BILDU) zinegotzi jaunak adierazi du pasa den otsailaren 24an Zorroza enpresako langile bat hil zela eta aurten laugarren hildakoa dela Araban. Koldo Mendioroz Goldaraz (EH-BILDU) zinegotzi jaunak esan du arazoa zela egunean hamar ordu baino gehiago egiten zituztela lan, NBERik gabe, ahozko erasoekin, etab. Horrez gain, adierazi du pertsona talde batek aipatutako langile horren ohorez monolito bat jartzea proposatu zela eta alkatearekin harremanetan jartzean, horrek arazorik ez zegoela adierazi ziela, baina txosten bat egin behar zuela udaleko teknikariak. Orain eman den ebazpena oso mingarria zaio, adierazi duelako ekintza ez dela interes publikokoa. Berak ez du ulertzen zer den interes publikokoagoa tragedia horren oroimenean eta gertatutakoa errepikatu ez dadin monolito bat jartzea baino. Era berean, esan du ebazpena tristeza dela eta heriotza hori gogoan izan behar dugula; horrenbestez, eskatu du langilearen heriotzarekiko soraioak diren ordenantza horiek guztiak berriz aztertzeko. Ez da soilik hildako pertsonaren omenez, gertatutakoaren oroimenez egiten den ekintza ere bada.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) erantzun dio dena hasieratik kontatu behar dela. Esan du beregana pertsona bat joan zela eta aipatu ziola Murgatik igarotzen den errepidean monolito bat jarri nahi zutela. Alkateak esan zien errepidea Foru Aldundiarena dela eta monolitoa jartzeko Errepide Sailaren baimen sektoriala behar dute. Lekua aldatzea erabaki zuten eta udaletxera bi pertsona etorri ziren, ertzaintza joan zelako, Udalaren baimenik gabe, poligonoan zulo bat egiten ari zirelako. Joandako ertzainari itxiko zela esan zitzaion, ez zela ezer gertatzen, eta horrek lizentzia eskatu behar zutela esan zien. Idazkaria oporretatik itzultzean, teknikariekin batera, espediente berriz ere hartu zuten eta legearen arabera, adierazi zuten ezin dela lizentzia eman. Esan du ez berak



ez bere taldeak, ez diela inoiz esan teknikariei nola egin txostenak legearen arabera, ez dutela egin eta ez dutela inoiz egingo. Gainera, beste kasu batzuetan bezala, batzuetan oso mingarria da sinatu behar dituen ebazpenak sinatzea, baina araudia dagoena da eta bete behar dugu, eta berak ez du inoiz txosten tekniko baten aurkako ebazpen bat onetsiko.

Era berean, alkate jaunak esan du Koldo Mendioroz zinegotzi jaunak esan duenarekin ados dagoela langilearen heriotzak sortutako tristurari dagokionez. Udalbatzak horren inguruko jarrera argia hartu zuen hori gertatu zenean, baina prozedura dagoena da.

Koldo Mendioroz Goldaraz (EH-BILDU) zinegotzi jaunak esan du berak jakin nahi duela Udalak monolitoa jarri ahal izateko neurriak bultzatuko dituen, teknikariak ezertara behartu gabe; ebazpena berriz aztertu dadila eta jarri ahal izateko bideak aztertu daitezela.

Alkate jaunak adierazi du ebazpena berriz aztertzea teknikariak txostena aldatzera behartzea dela, eta hori ez dute egingo, horregatik ezin da ebazpena aldatu. Halaber, esan du ezin zaiela teknikariei eskatu beste konponbide batzuk bilatzeko, haiek aplikatu daitekeen araudiaren arabera eskaera bati erantzuten diotelako.

Iratxe Parro Uzquiano (AIARA BATUZ) zinegotzi andreak esan du teknikariek haiei dagokien lana egin behar dutela, baina batzuetan aukerak ematen dituztela eta lagundu egiten dutela.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak esan du interes publikoa ezartzea Udalaren arabera dela.

Iratxe Parro Uzquiano (AIARA BATUZ) zinegotzi andreak adierazi du teknikariak laguntzeko daudela, beste gauza bat da erabaki politikoak hartu behar izatea.

Koldo Mendioroz Goldaraz (EH-BILDU) zinegotzi jaunak eskatu du Udalak erabakiak hartzeko monolitoa jarri ahal izateko.

Marian Mendiguren Mendibil (EH-BILDU) zinegotzi andreak honako esku-hartze hauek egin ditu:

- Esan du oraindik ez duela Barrena kaleko eta igerilekuetako obrak gauzatzeko epeen inguruko informaziorik, eta askotan eskatu du informazio hori osoko bilkuretan.

Alkate jaunak erantzun dio uste zuela eginik zegoela, baina bihar egiaztatuko duela.

- EH-BILDUK 2020ko udal-aurrekontuetan egindako ekarpenenei dagokienez (horiek mugikortasun-azterketa bat egitea, adineko pertsonen inguruko azterketa bat egitea eta Murga Industrialdeko proiektuaren ingurukoak ziren), galdetu du ezer egiten ari diren, uste baitute egungo egoera aintzat hartuta oso baliagarriak izango lirakeela. Esan du data hauetan eta dugun egoerarekin, zer gertatzen den jakin nahi duela, gastatzen den edo ez.

Alkate jaunak erantzun dio hartutako konpromisoa gauzatzeko dutela, eta lana aurrean ez egin arren, dirua ez dela gaineratikoan utziko.

Marian Mendiguren Mendibil (EH-BILDU) zinegotzi andreak galdetu du aurrean egingo den.



Alkate jaunak erantzun dio urtea amaitu baino lehen kontratazioak egin daitezen saiatuko dela.

Jorrazeko beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilera bukatutzat eman du arratsaldeko zortziak eta hamabost minutu direnean, eta aztertutako guztia eta hartutako erabakiak jasota gera daitezen, akta hau egin dut eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Arespalditzan, bi mila eta hogeiko urriaren hogeita bian.

O.E.

ALKATE-UDALBURUA.

Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

IDAZKARIA.

Sin.: M^a Del Carmen Rojo Pitillas.